
DOKUMENTU POLITIKOA

X. BILTZARRA



1. tesia. Diagnostikoa: Euskadi zibilizazio-krisiaren aurrean: ekonomikoa, soziala, ekologikoa eta zaintzen-arlokoa.

- Testuinguru globala
- Euskadiko egoera ekonomikoa eta soziala.
- Euskadiko egoera politikoa eta neoliberalismoaren alternatiba

Testuinguru globala

Ezker Anitza-IUren X. biltzarra osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisi batean egin da, 2020ko martxoaz geroztik izandako koronabirusaren pandemia globalaren ondorioz. Pandemiak eragotzi egin zuen biltzarra urte horretan egitea, birusa ez transmititzeko osasun-neurriak zirela eta.

COVID-19aren pandemia hasi zenetik urte eta erdi igaro ondoren, hasieratik ezarritako neurri askorekin jarraitzen dugu: edukiera mugatuak, ostalaritzako eta merkataritzako ordutegiak, eta maskarak erabili behar izatea espazio itxietan, garraio publikoan eta metro eta erdiko distantzia bermatu ezin den lekuetan.

Osasun-krisiak, hasiera batean, konfinamendua eta funtsezkotzat jo ez ziren jarduerak gelditzea eragin zuen, eta horrek munduko ekonomia bat-batean geratzea ekarri zuen 2020ko lehenengo hilabeteetan. Jarduera hori suspertzen joan da 2021ean, baina hori ez da gertatu modu berean leku guztietan.

PSOE-Unidas Podemos koalizio-gobernua osatu berria zen pandemia globala iragarri zenean, eta ordutik «gizarte-ezkutu» izeneko neurri batzuk hartzen joan da, 2020ko geldialdi ekonomikoaren ondorioak arintzeko; besteak beste, hauek izan dira neurri nabarmenenak: ABEEak, milioika pertsona lanik gabe eta inolako diru sarrerarik gabe geratzea saihestu dutenak; bizitzeko gutxieneko soldata, abian jartzean zailtasunak izan bazituen ere; edo ostatu hartzeko beste aukerarik ez zuten pertsonen etxegabetzeen zati handi bat gelditzea osasun-krisiak iraun bitartean.

COVID-19aren krisiak agerian utzi du, are gehiago, lehendik bazegoen zaintzen krisia, zeina feminismoa salatzen ari baitzen 2018ko martxoaren 8ko grebatik, zera aldarrikatuz: zaintzen zereginen banaketa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna, indarkeria matxistarik gabeko bizitza bat. COVID-19aren pandemian, ikusi da emakumeok are gehiago hartu behar izan ditugula gure gain zaintzak, bai etxean konfinatuta, bai funtsezko jardueretan (osasuna, elikadura, garbiketa). Eta aldarrikapen horiek dirudite bigarren maila batean daudela pandemiak sortutako egoeragatik, baina lehentasuna eman behar zaie gizarte justu eta berdinzalea lortzeko.

Gainera, pandemiak ezin du eta ez du errealitate are kezkarriago bat ezkutatu behar: kapitalismoa gure planeta suntsitzen ari da. Hori ez dugu jada guk bakarrik esaten, IPCCko teknikariek ziurtatzen dute eta haien esanetan «kapitalismoa ez da jasagarria»; NBERen aditu-taldearen seigarren txostenari buruzko adituen batzordearen azken filtrazioen arabera, klima-kolapsoa saihesteko modu bakarra betiereko hazkundean oinarritutako ereduetatik aldentzea da.

Ezin dugu baztertu kapitalismoaren krisiei uneotan aurrekaririk gabeko krisi ekologikoa gehitu behar zaiela. Giza jarduerak eragindako klima-aldaketa errealitatea da, bai eta planetan gure iraupena kolapsatzeko mehatxua ere. Krisi horrekin batera, lehengaien falta ere badago, eta denbora oso laburrean aldaketa sakonak ekarriko ditu mundu mailan;

horrek ondorioak izango ditu, halaber, Euskadin. Horrenbestez, ezinbestekoa izango da ekonomia demokratikoki planifikatzea eta erabakitzea zer den ekoitzi beharrekoa eta zer ez, bizitza oro har sostengatzeko eta etorkizuneko belaunaldiek bizitza duin bat izan dezaten.

Euskadiko egoera ekonomikoa eta soziala

2020ko martxotik, COVID-19a izan da jarduera politiko eta instituzional guztiaren ardatza; izan ere, zinez handia izan da kutsatutakoen eta hildakoen kopurua Euskadin: 250 mila kutsatu eta 4.600 hildakotik gora (2021eko abuztuko datuak). Azpimarratu behar da Euskadi, pandemia hasi zenetik, kutsatzen eta hildakoen indize handienetakoa duen erkidegoen artean dagoela. Esan behar da EAJ eta PSE alderdiek zuzendutako Eusko Jaurlaritzak ahalegintzen dela hemen dena hobeto dagoelako itxura ematen, baina datuek agerian uzten dute hori ez dela horrela.

Pandemiak eragindako egoeraz gainera, desindustrializazio-prozesu berri bat gertatzen ari da (Tubacex, La Naval, ITP...), enpresak saltzen ari dira (hala nola Euskaltel, diru publikoarekin sortua) edo Kutxabanken bulegoak ixten ari dira (hiru euskal aurrezki-kutxen bankua).

Eta, bitartean, zerbitzuen sektorea, bereziki turismoa, eta eraikuntza bultzatzen dira eta ekonomia finantziarizatzen da, inbertsio-funts espekulatiboak erakartzera bideratutako politiken bidez. Hau da, lan-kondizio hobekak dituen enplegu industrialak ordezkatzeko ari da urte-sasoian araberakoa eta prekarioa den beste enplegu mota batez, eta, beraz, epe ertainean langile-klasea are gehiago txirotuko da.

PP alderdiaren lan-erreformak eragin du, Euskadin ere, lan-arloko arazo handienetako bat behin-behinekotasuna izatea (sinatzen diren kontratuen % 90 aldi baterakoak dira), eta inpaktu berezia du gazteengan; izan ere, ezinezkoa dute bizi proiektu bat garatzea, ez baitute diru-sarrera egonkorrik. Lan-prekaritatea arau bihurtu da. Horregatik, garrantzitsua da lan-erreforma indargabetzea eta hitzarmen kolektibo sektorialak defendatzen jarraitzea; izan ere, hitzarmen horiek babestu egiten dute langile-klasea, oro har, eta, bereziki, mikroETEetan eta ETEetan lan egiten dutenak, bai eta sektore prekarizatuagoetan dihardutenak ere –askotan emakumeak izaten dira horiek–.

Aurrerapen teknologikoen ondorioz lanpostu asko arriskuan dauden une honetan, defendatu beharko dugu «gutxiago lan egin, denok lan egin dezagun» aspaldiko leloa eta lanaren banaketa –bai produktiboa bai erreproduktiboa–, eta, era berean, bizitza duina eta duintasun osoko giza eta gizarte-garapena ahalbidetuko duten soldata egokien aldeko borroka izan behar du gure ardatzetako bat.

Laneko ezbeharren ondorioz langile asko hiltzen da urtero Euskadin. Osalanen datuen arabera, 2020an 29.979 istripu arin, 196 istripu larri eta 27 istripu hilgarri gertatu ziren; horrez gain, pandemiak eragindako lan-geldialdiak ez zuen laneko ezbehar-tasa geldiarazi, eta horrek agerian uzten du neurri eraginkorrak aplikatu behar direla lan-istripuak amaitzeko.

Desindustrializazio-prozesua eta sektore turistikoaren, eraikuntzaren eta zerbitzuen gorakada are gehiago ari dira okertzen Euskadiko beste arazo handietako bat: etxebizitza bat eskuratzea. Ez dago nahikoa parke publiko etxebizitza bat izateko eskubidea bermatzeko eta Etxebizitza Legeak berak ezartzen duen xede soziala betetzeko.

2015ean onartutako legea da hori, EAJren babesik gabe, eta ez da osorik garatu; izan ere, besteak beste, bi urtez hutsik dauden etxebizitzak desjabetzea aurreikusten zuen –horietako asko bankuen edo putre-funtsen jabetzakoak dira–, baina hori ez da bete. Euskadiko Alderdi Sozialista, legearen sustatzailea, ez da gai izan bere koalizioko gobernukidea den EAJri presio egin, etxebizitzak euskal herritarren arazo nagusietako bat izateari utz diezaion.

Zerbitzu publikoak defendatzea da Ezker Anitza-IUren politikaren ardatz nagusia; ezinbestekoa da zerbitzu publikoak (osasuna, hezkuntza, zaintzak, pentsioak) defendatzea eta bermatzea, eta ez soilik titulartasunari dagokionez; kudeaketari ere heldu behar zaio. Izan ere, zerbitzu publikoen azpikontratazioa, edo gaizki deitutako lankidetzak publiko-pribatua, iruzur bat besterik ez da, eta enpresa batzuek negozioa egiten dute diru publikoaren, zerbitzuen kalitatearen eta zerbitzu horiek ematen dituzten langileen lan-kondizioen kontura.

Duela zenbait hilabete, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) 6,3 milioi euroko isuna ezarri zien 22 aholkularitza-enpresari kontratu publikoak elkarren artean banatzeagatik, eta aipatu zuen euskal administrazioei eragiten dien «iparraldeko adar» bat zegoela. Egiteko modu hori ez da ezezaguna Euskadin; izan ere, Lehiaren Euskal Agintaritzak ere antzeko azpijokoak aurkitu ditu Gipuzkoako garraio pribatuan eta Euskadiko ikastetxeetako jantokietan. Horrek agerian uzten du benetako lehia ez dela existitzen, eta zerbitzu publikoak azpikontratatzek ez duela bermatzen ez kostuak aurrezteak, ez eraginkortasun eta efizientzia handiagoa izatea. Enpresa batzuek baliabide publikoekin negozioa egiteko modu bat baino ez da, EAJK bultzatutako eta PSEk bermatutako kudeaketa-eredu publiko-pribatuaren erakusgarri: diru publikoa, kudeaketa pribatua, kontrol eza.

Euskadiko pobrezari eta desparekotasun sozialei buruzko azken inkestak ohartarazi duenaren arabera, pobrezia gutxitu egin den arren, desberdintasuna areagotu egin da, gehien zutenak are gehiago aberastu direlako. Halaber, erakutsi du haurren pobrezia igo egin dela eta migratzaileak eta ama bakarreko familiak direla pobrezia-egoerak gehien pairatzen dituztenak, eta, aldi berean, DSBE, GLL eta ABEE-ek kolektibo behartsuenen zailtasunak arindu dituztela. Nolanahi ere, zenbaitek gizarte-babeserako neurri horiei prestigioa kentzeko grina du, eta horiek desegin edo horiek eskuratzeko aukerak zaildu nahi dituzte. Eragotzi egin beharko dugu EAJK eta PSEk proposatutako DSBEren aldaketak hura ahultzeko balio izatea, eta ahalegindu egin beharko gara inklusio-sistemaren erreforma oro pertsona gehienengana irits dadin eta gizarte-desparekotasunak areagotzen jarraitzea saihesteko soilik izan dadin.

Halaber, azken hauteskunde autonomikoetan elementu berri bat heldu da Legebiltzarrera: VOXen eskuin muturra sartu da Gasteizko Legebiltzarrean. Gertakari horrek anekdota bat irudi dezake, baina hedabideetan, zenbait alderdi politikotan eta gizarteko zenbait sektoretan mugimendu hori izaten ari den gorakada handiari erantzuten dio. Ondorioz, iruditeria kolektiboan onartu egin dira alderdietatik harago doazen planteamendu arrazistak, pobrezia eta emakumeak kriminalizatzen dituzten proposamenak eta askatasunak murriztearen aurreko diskurtso sekuritarioa. Hori horrela, EAJKo alkateren bati entzun diegu esaten «zaborra» direla Sestaoko eremu jakin batean bizi ziren migratzaileak eta ijito-etniako pertsonak, Bizkaiko Foru Aldundiko DSBEren hartzaileak kriminalizatzeko kanpainak egin dira, eta Patxi Lópezen gobernuak gizarte-estalduretan jite horretako murrizketak egin zituen, oraindik ere irauli ez direnak. Gizartean, areagotu egin dira LGTBI+ pertsonen eta emakumeen aurkako gorroto-delituak, edo eraso arrazista eta xenofoboak, bai eta memoria historiko errepublikanoko elementuen aurkako erasoak eta ezkerreko alderdi, sindikatu eta gizarte kolektiboen egoitzen aurkako erasoak ere.

Euskadik zerga-eskumen handiak ditu Ekonomia Itunaren bidez, baina EAJk elite ekonomikoei onura egiteko erabili ditu, eta zerga-arloko erreforma handi guztiak kapitalari eta ondare handiei mesede egiteko izan dira, lan-errenten kaltetan, zeinak BEZarekin batera bilketa osoaren % 80tik gora diren. Lotsagarria da gure lanaren errendimenduek kapitalak edo enpresa-irabaziek baino zerga gehiago ordaintzea.

PSEk ere babesten duen zerga politika horren ondorio bat da Euskadi izatea, Nafarroarekin batera, Estatuko eta EBko zerga-presio txikienetako bat duen lurraldea. Presazkoa da zerga-politika horiek aldatzea, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko nahikoa diru-sarrera publiko izateko, gizarte justu eta kohesionatua lortzeko berme bakar gisa.

Euskadiko egoera politikoa eta neoliberalismoaren alternatiba.

Euskadin hauteskunde autonomikoak egin ziren 2020ko uztailean. Urkulluk otsailean deitu zituen, baina COVID-19aren pandemiaren ondoriozko konfinamendua zela eta, ezin izan ziren apirilean egin, bertan behera geratu ziren eta uztailean egin ziren. Uztaileko hitzorduak abstentzioa handitzea ekarri zuen (ia % 50a), eta horrek ez du bakarrik justifikatzen Elkarrekin Podemosen aurreko botoen erdia baino gehiago galtzea (85221 boto galdu zituen, 152334tik 72113ra); horrek, gainera, 5 eserleku galtzea ekarri zuen Elkarrekin Podemos-IUrentzat.

EAJk, hauteskundeak irabazi arren (% 39,7), 50 mila boto galdu zituen, baina 3 jarleku gehiago lortu zituen; EH Bildu (% 27,86) botoetan igo egin zen, eta beste 3 jarleku lortu zituen. PSEk (% 13,65) jarleku bat irabazi zuen; PPK (% 6,77) 3 galdu, eta VOX (% 1,96) Eusko Legebiltzarrean sartu zen jarleku batekin. Emaiza horiek gehiengo osoa eman zioten EAJ+PSE baturari, eta aurreko legealdiko gobernu-koalizioa errepikatu zuten.

Urte luzez, EAJk botere politiko instituzional handia lortu du Euskadin, eta bezeroen sare bat osatzeko baliatu du, horretarako funtsezko tresna gisa aurrekontu publikoak erabilita. Hala, gizarteko sektore pribatuekin eginiko hitzarmenez eta haiei –direla enpresak, unibertsitateak, irabazi asmorik gabeko erakundeak edo bestelakoak– emandako dirulaguntzaz beteta daude aurrekontu horiek. Bestalde, euskal irriti eta telebista publikoak kontrolatu ditu; horri esker, bere aldeko iritzia sortu du beti, eta gizarteari sinetsarazi dio ez dagoela EAJren gobernuen alternatibarik. Langile-klasearen zati batek hura bozkatzeari lortu du, gero boto horiek eliteetarako politikak egiteko erabiltzeko.

2019ko hauteskunde orokorren emaitzak eta Espainiar Estatuko Parlamentuan gehiengorik ez duen lehenengo koalizio-gobernua osatu izana baliatzen ari dira bai EAJ bai EH Bildu Kongresuan duten ordezkariari balioa emateko eta, era berean, euskal gizarteari helarazteko han erabilgarriak direla. Hori ez da berritasuna EAJri dagokionez; izan ere, «zentraltasun» hori izan du beti, PP nahiz PSOE babestu baititu behar izan denean. Hala ere, berritasuna da EH Bilduren kasuan, zegozkion jarlekuetan ez esertzetik Estatuko lehenengo koalizio-gobernu progresistaren gobernarritasuna bermatzeko beharrezkoa dela aldarrikatzera igaro baita. Horri dagokionez, gehitu behar da sortu den irudia, eta UP/EP-IUK ez duena jakin edo ezin izan duen ideia desagerrarazi, talde horiek (EH Bildu eta EAJ) soilik direla euskal biltzarkideak, eta gure ordezkariak, berriz, badirudi Euskadikoak ez diren interes edo kezkei erantzuten diela soilik.

Euskadin ezkerreko alternatiba bat eraikitzeak zailtasunak ditu. EH Bildu nazionalisten arteko akordioekin eraikuntza nazionalaren aukeraren eta progresisten indarrekin gizarte-eraikuntzaren alde egitearen (guretzat nazionala ere badena) arteko pultsioan bizi da. Aldiz, Ezker Anitza-IU estatu federal errepublikanoa defendatzen dugu, eta ez Podemos eta ez PSE ez dira independentistak. Gainera, beste zailtasun bat da EH Bilduk, eta zehazki Sortuk, ez onartzea ETAREN terrorismoak eragindako kalte arrazoirik gabekoa eta bidegabea, eta ekidistantzian iltzatuta jarraitzen dute, ongietorri publikoak defendatzean erakusten duten moduan. Egoera hori erabiltzen du PSEk EAJrekin dituen akordioak zurrizteko.

Une honetan, gobernu-koalizioak daude PSE eta Podemos/Ezker Anitza-IU artean Irunen (Gipuzkoako bigarren udalerrri garrantzitsuena), eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU artean Errenterian eta Durangon.

PNV-PSE ententearen alternatibak dira, eta oso urduri jartzen dituzte EAJkoak, botere politikoa galtzea ekarriko bailuke, Euskadiko beste udalerrri edo erakunde-eremu batzuetan erreplikatur gero; 2023ko udal- eta foru-hauteskundearen ondoren gerta liteke hori. Hori ez dugu bistatik galdu behar, EAJ aukera horiek neutralizatzen ahalegintzen baita eskura dituen baliabide guztiekin. Horrenbestez, ezkerrearen presentzia handitzeko eta alternatiba hori eraikitzeke prestatzen hasi behar dugu.

Beharrezkoa da PSEren laguntza subsidiarioarekin EAJk ordezkatzeko duen euskal eskuinaren alternatiba indartsu bat eraikitzea, beste gizarte-eredu justu eta berdinezale bat garatu ahal izateko. Gure burua ezkertiar aldarrikatzen dugun alderdiok horretarako ados jartzen bagara soilik egin ahal izango da hori.

Gainera, IX. Biltzarreko dokumentuan esaten dugun bezala, oraindik ere beharrezkoa da bloke sozial eta politiko alternatibo bat osatzea, prozesu konstituziogile baterako haustura demokratiko eta sozialaren estrategiaren oinarri izan dadin. Berresten dugu beharrezkoa dela herri-batasun zabalenean aurrera egitea, zentzu oso batean, eta ez hauteskunde zentzuan bakarrik, sozialki eta politikoki esku har dezagun gizartearen eraldaketa sozialistarako programa baten inguruan.

Dokumentu hau gida bat izan behar da langile-klasearentzat, batez ere pertsonarik ahularentzat, etorkizunean antzematen diren zailtasunei aurre egiteko, eta alternatibak proposatzeko, pertsona guztiek bizitza duina izan dezaten orain eta etorkizunean.

2. tesia. Gure herrialde proiektua: Nahi dugun Euskadi.

- Errepublika, federalismoa eta autogobernua, sozialismorantz aurrera egiteko.
- Alternatiba feminista. Hari morea.
- Demokrazia ekonomikoa eta soziala. Hari gorria.
- Eredu ekonomiko eta garapen-eredu berde eta justua. Hari berdea.
- Giza eskubideekiko konpromisoa. Hari zuria.

- **Errepublika, federalismoa eta autogobernua, sozialismorantz aurrera egiteko.**

- o III. Errepublika, Sozialismora iristeko bidea.
- o Prozesu konstituziogilea eta erabaki askea.
- o Federalismoa eta autogobernua.
- o Estatutu berria eta euskal erakunde-arkitektura,

III. Errepublika, Sozialismora iristeko bidea:

Ezker Anitza-IU euskal erakunde errepublikanoa eta federalista da. Gure erakundearentzat Errepublika ez da estatu forma huts bat, zeinak, funtsean, Estatuko buruzagitzaren presidentetza, oinordetza bidezkoa izan ordez hautazkoa izanaraztea bilatzen duena soilik. Alternatiba errepublikanoa planteatzea ez da neutroa; Errepublika da Estatuaren ikusmolde bat, printzipio, balio, eduki, erakunde-funtzionamendu eta gizarte-errealitatearekiko lotura jakin batzuk ezaugarritzat dituen, eta, hain zuzen, ezaugarri horien ondorioz askatasunez onartutako ordezkari bat dakarrena, Demokrazia Errepublikanoa deitzen dioguna, alegia.

Sare publikoaren aldeko apustua egiten dugu; izan ere, berdintasunean sinesten dugu, ordezkariako demokraziaren tradizioa espiritu kritikoz onartzen dugu, hura gainditzeko, eta askatasunaren tradizio errepublikanoa banakako eta taldeko emantzipazio gisa hartzen dugu, eta parte-hartze gisa.

Hortaz, Errepublika ez dugu Estatuaren buruzagitza eratzeko formara mugatzen. Errepublika, Estatu errepublikanoa, ez da oinarritu behar herri edo nazio abstraktu eta idealki subirano batean, baizik eta herritarrengan; parte-hartzean; askatasunean –baina ez norbanakoaren aurreko botere publikoaren abstentzio gisa ulertuta, baizik eta zeregin kolektibo gisa ulertuta–; berdintasunean –baina ez legearen aurreko berdintasunaren aitortze huts gisa ulertuta, baizik eta aukera-berdintasun eraginkor gisa ulertuta–; sendetasunean –guztientzako justizia eta zorientasuna sustatzen dituen gizartearen antolakuntza solidario gisa ulertuta–.

Horren ondorioz, gure proposamen errepublikanoa egungo errealitatearen alternatiba demokratiko gisa agertzea ezartzen da, hau da, monarkia parlamentarioaren eta «78ko erregimena» delakoaren alternatiba gisa. Alternatiba errepublikano hori herritarren babes handienarekin osatu, garatu eta babestu behar da. Lan hori, horrenbestez, gure erakundearen funtsezko zeregin bihurtzen da.

78ko Konstituzioak partekatzen eta defendatzen ditugun oinarrizko elementuak baditu ere, klase-erakundeak eta antifaxistek aukera eman zietenak klandestinitatea uzteko, eta gizarteari eta langile-klaseari beren interesen defentsan aurrerapausoa emateko, beharrezkoa da frankismoaren botere politiko eta ekonomikoko egituren oinordeko eta defendatzaile den monarkia parlamentarioaren egungo eredu gainditzea. Eredu horrek inboluzio-prozesu bat izan du azken hamarkadan, bereziki 135. artikulua erreformaren eta 155. artikulua aplikazioaren ondoren, baliabideak kapitalera transferitzea eta lan- eta gizarte-eskubideak murriztea edo ezabatzea bermatuz, irabazi-tasa eta kapitalaren ugalketa bermatzeko, bai eta estatuaren izaera zentralista indartuz ere, monarkiaren prozesu leheneratzailearen atzeraezintasuna bermatu nahian.

Ilde horretan, 78ko erregimen monarkikoa agortuta eta krisian dago: batetik, 78ko Konstituzioaren alderdi aurrerakoiak ez dira aplikatu, eta, kasu batzuetan, legedi arruntak murriztu egin ditu; eta bestetik, eredu oso ustela dela erakutsi da, eta hartaz baliatu dira bereziki monarkia eta 78ko *status quo*a defendatzen zuten alderdiak, PSOE eta batez ere PP, alderdi horren ustelkeria egiturazkoa dela erakutsi baita. Alabaina, nazionalitate historikoetako burgesiak eta oligarkiak ordezkatzeko dituzten alderdi nazionalistak ere eredu horretaz baliatu dira. Horien adibiderik lazgarriena da jada desagertuta dagoen CiU

Defendatzen dugun eraldaketa errepublikanoak eskatzen du botere publiko indartsu, demokratiko eta parte-hartzailea duen estatu bat, esku-hartzea proposatzen duena eskubideak bermatzeko, bereziki langile-klasearen gehiengo sozialaren eskubideak babesteko, hezkuntzarako eskubidea, osasunerako eskubidea, lanerako eskubidea, etxebizitzarako eskubidea eta aisialdirako eskubidea bermatuko dituzten kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak ezartzeko eta aberastasuna eta aukerak birbanatzeko.

Gizarte-erlaketak, gizarte-ongizatea ez ezik, justizia soziala eta berdintasuna aktiboki sustatuko dituen estatua eskatzen du. Iraultza demokratikoa eta iraultza soziala estuki lotutako bi prozesu dira. Ekoizpen-indar handien jabetza-harremanak aldatu egin behar dira, baldin eta demokrazia ekonomian sartzea eta merkatuen morroi izateari uztea nahi badugu. Ekonomiaren plangintza demokratikoa, ekonomiaren behar sozialak lehenetsiko dituen eta naturak ezartzen dizkigun mugak kontuan hartuko dituen.

Aldi berean, bizi garen gizarte konplexu honetan, ez da nahikoa subiranotasuna herriari dagokiola teorikoki baieztatzea; benetako demokrazia batek eskatzen du arduratzea herritarrek parte hartzeko mekanismoak biderkatzeaz eta indartzeaz; herritar guztiek erabakietan parte hartzeko aukera izateaz –eta ez pertsona pribilegiatu gutxi batzuek bakarrik–; gardentasuna bermatzeaz botere publiko guztien jardunean; informazio askea eta objektiboa ziurtatzeaz, gizarte osoaren eskura jarrita; boterea dutenen gaineko kontrol mekanismoak zorrotzeaz; erabakiak erabaki horiek jasaten dituztenei ahalik eta gehien hurbiltzeaz.

Defendatzen dugun Errepublikaren ezaugarri bereizgarriak laikotasuna eta feminismoa dira. Laikotasuna zentzu zabalean, ez bakarrik, baina baita ohiko zentzuan ere, erlijioari dagokionez. Botere publikoek ahalik eta zorrotasun handienarekin errespetatu behar dute pertsonen askatasuna; bereziki, haien iritziarekin, kontzientziarekin eta sinesmen erlijioso, filosofiko eta politikoekin lotuta. Halaber, desberdina izateko eskubidea bermatu behar dute, bai eta bizi garen gizartearen aniztasun kulturala, linguistikoa eta identitarioa ere. Botere publikoa partekatutako balio batzuen arabera zuzendu behar da, eskubideak errespetatzeko esparru batean bizikidetzatza ahalbidetzeko, baina ez die identitate bat inposatu behar ez herritarrei banaka, ez kolektibo sozialei, ez eta gizarteari oro har ere. Estatuak laikoa izan behar du; hortaz, konfesio eta erlijio-aukeretatik independentea izan behar du, eta ez du inolako konfesio edo erlijio-praktikarik sustatu behar bereziki.

Feminismo bat, gizarte patriarkal bat desmuntatu behar izatearekiko konpromisoa adierazten duena; izan ere, gizarte patriarkalaren eredu horrek arlo pribatuko harreman pertsonalei eragiteaz gain, zeharka bizitza politikoaren arlo guztietan agertzen da eta erakundeetan islatzen. Errepublika Federala eratzeko, genero-berdintasunaren berme osoak jaso behar dira, eta Konstituzioaren aurkakotzat jo behar da genero-berdintasuna atal guztietan jasotzen ez duen edozein lege. Gainera, emakumearen erabakitzeko eskubidea eta berdintasun balioetan hezteko aurreikusi behar dira.

Ekologismoa: gaur egun ezin da politika ulertu ikuspegi ekologista sartu gabe. Larrialdi klimatikoan gaude. Beharrezkoa da gure energia-ereduan, kontsumo-ohituretan eta garraio-ereduetan sakoneko aldaketak egitea. Baliabide naturalen erabilera arduratsua azpimarratu behar da, natura-ingurunearekiko errespetua eta 3 RRReduce-Recicla-Reusan kultura. Hezkuntzan kontzeptu horiek sartu behar dira, kontsumo arduratsuan hezi. Hondakinen sorrera murriztu behar da eta horien tratamendu egokia egin. Emisioak murrizteko eta energia garbiak hobetzeko ikerketa-programak bultzatu behar dira. Energia-politika oligopolio pribatuek gidatzea eragotzi behar da. Ezkerreko fronte zabalean mugimendu ekologistak sartu behar dira. Etorkizuneko gizarteak ingurumenarekin konprometituta egon behar du, planetaren garapena eta babesa orekatzeko gai izan behar du.

Azken finean, zuzenbide-estatua, errepublika, justizia soziala, federalismoa, demokrazia, elkartasuna, laikotasuna, feminismoa eta ekologismoa elementu bereizezinak dira gizarte-eredu berriaren proposamen bat egiteko, batez ere azken hamarkadetan Europa osoan nagusitu diren politika neoliberalen ondorioz krisi politiko, sozial eta ekonomiko sakona bizitzen ari garen uneotan; Espainian, gainera, Trantsizioan sortutako eredu agortzearen ondorioz, krisi hori are larriagoa da.

Gaur egun, bi bide besterik ez daude Espainiar Estatuan: 78ko erregimena erreformatzea edo haustea. Erregimeneko eta oligarkiako alderdiek Europako nazioz gaindiko kapitalarekin egindako itunaren aurrean, Estatu osorako prozesu konstituziogile baten alde egin behar dugu. Alabaina ez da soilik Konstituzioaren proposamen zehatz bat egitera mugatu behar; aldiz, herritarren babes zabalenean eta langile-klasearen mobilizazioan oinarrituta, herrialde proiektu bat egin behar du, demokratizazio politiko eta ekonomikoaren, eskubide eta askatasunen, herrien eskubideen aitortzaren eta Estatuaren plurinazionalitatearen bidea ireki behar du. Laburbilduz, III. Errepublika, Sozialismora iristeko bidea.

Prozesu konstituziogilea eta erabaki askea.

Identitateen aniztasuna moldatzeko aukera emango duen estatu-eredu bat defendatzen dugu, aniztasuna aitortuko duen diskurtso komun bat izateko gai izango dena; plurinazionala, ez soilik nazio bat baino gehiago elkartzearen zentzuan, baizik eta, horrez gain, lurralde berean eta komunitate berean kide diren nazioari buruzko ikusmolde desberdinak dituzten eta identitate sentimendu desberdinak dituzten pertsonen arteko bizikidetzaren ahalbidetzen duelako.

Estatu pluralista batek soilik ase ditzake nazioa askotariko moduetan irudikatzen duen eta halabeharrezko identitate eta bizikidetzaren gatazkak aietasunez maneiatzeko eta elkarrizketaren eta adostasunaren bidez konpontzeko gai diren herritarrak, baldin eta estatu pluralista horrek nazio identitatearen hainbat sentimendu elkarrekin bizi daitezkeela onartzen badu eta deszentralizazioaren eta lurralde autogobernuaren bidez demokrazian sakontzen badu.

Estatu hori, beraz, nazio eta herrien borondatetik abiatuta eraiki behar da. Ezinbesteko borondatea da hori, hain zuzen ere, langileen gehiengo sozialaren zerbitzura sortzen den batasunak indar handiagoa izatea bermatzeko. Ildo horretan, Ezker Anitza-IUK

errepublika federala eta plurinazionala eraikitzearen aldeko Euskadi aktibo bat defendatzen du.

Nolanahi ere, Euskadin hipotetikoki egin daitekeen kontsulta baten erabakia errespetatuko dugu. Agerikoa da euskal gizartearen zati batentzat Euskadik Espainiar Estatuan duen lekuari eta subjektu politiko gisa erabat aitortzeari buruzko gatazka politikoa konpontzeko dagoela. Horren haritik, gure ustez, demokrazia zorrotz aplikatzea da soluzio posible bakarra. Egungo administrazioaren eta politikaren arloko errealitatek abiatuta, Euskadiko herritarrei galdetu beharko genieke Estatuan sartzeko zein eredu nahi duten edo Estatuaren parte izateari uko egin nahi dioten. Kontsulta horretan, Ezker Anitza-IUk eredu federal baten alde egingo luke, Euskadin eta Estatuan gure ezaugarri ideologikoa eratzten duen ereduaren alde, hain zuzen.

Prozesu hori Estatuarekin hitzartu behar da nahitaez; izan ere, Estatu mailako akordiorik gabeko horrelako kontsulta batek, emaitza gorabehera, oraindik ere konpontzeko dagoen gatazka politikoa okertu egingo luke. Esparru horretan bihurtzen da prozesu konstituziogilearen proposamena, Estatu osoan, tresnarik onena autodeterminazio-eskubidearen auziari irtenbide demokratiko eta egingarria emateko; izan ere, egungo indar-korrelazioa eta 78ko erregimeneko egungo *status quo*-a kontuan hartuta nekez gauzatuko da ongi Euskadiren erabakitzeko eskubidea –dela bide adostutik, dela alde bakarretik– egungo esparru konstituzionalean babestuta.

Prozesu konstituziogile bat, zeinaren bidez herritarrek erabakitzeko eskubidea balia dezaketen demokrazia defendatzeko eta proposatzen dugun estatu plurinazional eta soziala konkistatzeko. Estatu osoan prozesu konstituziogile errepublikano bat garatzeko hegemonia irabazi behar da; hain zuzen, hortxe du legitimazio demokratiko osoa eredu federal solidarioaren proposamenak. Alegia, aldean adostasunean eta borondatean oinarrituta, Espainia plurinazionalaren lurralde guztientzako proposamen bat egitea, aurreratua izango dena, arlo politikoan deszentralizatutako herrialde berria eta bateratua eraikitzeke gehiengo langilearentzat, eskubide sozialei dagokienez.

Prozesu konstituziogile bat, erabakitzeko eskubidea gizartearen eta klasearen ikuspegitik gauzatzeko tresna demokratiko gisa sortua. Prozesu konstituziogile bat, langileen gehiengo soziala ordezkatzeko eta defendatzeko duen estatua eraikitzeke. Prozesu konstituziogile bat, eskubide politiko eta sozialen defentsa legitimoan, langileen gehiengo sozialak erabakitzeko eskubidea balia dezan, berezkoak dituen eskubideak konkistatzeko eta gauzatzeko aukera emango dion estatu-arkitektura eraiki ahal izateko.

Prozesu horren arrazoia izan behar da langileen gehiengo sozialaren eskubideak itotzen ari den sistema politiko ekonomikoarekin haustea. Prozesu hori politika egiteko beste modu batzuetatik sortu behar da, demokrazia parte-hartzailean oinarritutako jokoaren beste arau batzuk sorraraziz. Prozesuak antikapitalista izan behar du, errepublikanoa, herriaren subiranotasuna berreskuratzeko duena, inperialismoaren aurkakoa eta feminista.

Prozesuak 1978ko Konstituzioa gainditu izanaren aitortzatik abiatu behar du; izan ere, haren eduki sozialak paper erreala dira, eduki horiek ez direlako betetzen, eta zaharkituta geratu da, ez dielako erantzunik ematen herriaren beharrei. Eragile askok parte hartzeari irekitako prozesua izan behar du, maila kolektiboan, indibidualean eta horizontalean; horrela, prozesuaren helburuetako batek izan behar du herritarrak gobernatzen eta ordezkatzeko dituzten pertsonak parte hartzeko eta haiek baliogabetzeko tresna iraunkorrak sortzea. Prozesuaren beraren xedea da hizkuntza ulergarri eta hurbilekoa erabiltzea, guztiek politika egin ahal izan dezaten.

Federalismoa eta autogobernua.

Idea federalistak eguneratu egin behar dira, mundu globalizatu baten beharrei erantzuteko, eta indarrean jarraitzen dute estatu nazional zentralizatuen alternatiba gisa. Federalismoak nahikoa tresna eskaintzen du aurre egin beharreko zailtasunak eta kontraesanak maneiatzeko gero eta konplexuagoak eta pluralagoak diren gizarteetan; izan ere, gizarte horietan herritarrek boteretik hurbilago egotea eskatzen dute, baina,aldi berean, gizarte horiek nazioz gaindiko erakunde politikoetan sartu behar dute, eta egitura handi horietan interdependentzia ekonomikoa, politikoa eta soziala hazi egiten da.

Hori horrela, gure proposamen federala zuzenean lotuta dago aukera errepublikanoarekin, zentzu bikoitzean: Kargu publiko guztiek herritar guztiek eskuratzeko moduan egon behar dutela defendatzea, herritarrek horien ardura eta kontrola izan behar dutela kontuan hartuta, bai eta Estatuko Buruzagitza ere. Monarkia errefusatu egiten dugu, Estatuko magistratura gorena familia bati gordetzea dakarrelako, gainerako herritarrak hortik kanpo utzita eta konstituzionalki arduragabekeria-erregimen bat mantenduz; ikusi dugun moduan, gainera, erregimen hori ustelkeriarako haztegi ezin hobea da. Baina, gainera, Koroaren oinordetza jaraunspenezkoa izateari eusteak, erakundearen izaera sinbolikoagatik, balio oso kontserbadoreak onartzea dakar, hala nola oinordetzak eta tradizioak gizarte politikoaren eraketan duten eginkizuna, eta, Espainiako monarkiaren kasu zehatzean, eredu patriarkala kotsakratzea, gizonezkoen oinordetza lehenesten delako emakumezkoenaren aurretik.

Era berean, federalismoaren erdibideko eredu gisa, autonomia-erkidegoetan oinarritutako Estatuko eskumen-sistema Espainiako Gobernua osatzen zuten erakundeen interes alderdikoen mende egon da une oro, bai eta zenbait autonomia-erkidegotako gobernua osatzen zutenen mende ere (gure kasuan, funtsean, PSOE, PP eta EAJ), eta tentsio interesatuak eta identitate-borrokak ere sortu izan dituzte. Gai horrek, Estatuan dauden identitate nazionalak aitortza jasotzeko nahiaren eta identitate horien autodeterminazioarako eskubidearen egoera konpondu gabearekin lotuta, 78ko erregimenean porrota ekarri du, halaber; izan ere, ez da gai izan Estatuaren plurinazionaltasuna aitortzeko, eta are gutxiago Estatuaren osatzen duten herrien erabakitze eskubidea aitortzeko.

Federalismoak demokrazian eta herritarren parte-hartzean, tokiko eta eskualdeko autogobernua, lurraldeen arteko lankidetzan eta solidaritatean, identitate desberdinen errespetuan eta integrazioan, autodeterminazioaren eta erakunde politiko komun bateko kide izatearen arteko bateragarritasunean sakontzeko aukera ematen du. Gure proposamen federalistak itun eta negoziazio multilateralaren ideien gainean eraikitzen du antolakuntza politikoa.

Gaur egun, erabaki askearen printzipio demokratikoa aldarrikatzea eta defendatzea bereziki beharrezkoa da eskubide demokratiko eta sozialekin lotuta; izan ere, horiek akabatzen ari da kapitalismo globala. Funtsezkoa da Estatu osoko herritarrek eta langileen gehiengo sozialak, gizartearen eta klasearen ikuspegitik, erabakitze eskubidea baliatzea politika-, gizarte- eta lan-arloan dituzten eskubideak defendatzeko.

Estatu federala, plurinazionala eta errepublikanoa, kooperatiboa eta solidarioa defendatzeko, tresna konstituzional bat eduki behar dugu, errealitate plurinazional, kulturantzun eta eleaniztun batetik eratorritako kontraesanak konpontzen lagunduko duena, Estatuaren osaeraren dibertsifikazioa onartzeko,

lurraldeen eta gizartearen arteko berrerekak bermatuz; hau da, berdintasunaren eta justizia sozialaren printzipioak gauzatuko dituen Estatu bat bermatuz.

Proposamen federal, plurinazional, kooperatibo eta solidarioaren oinarrian herri eta nazioak itun konstituziogile batera askatasunez eta borondatez atxikitzeak egon behar du; hartara, Errepublika Federalaren Konstituzioa federatzen diren lurralde unitateek osatuko lituzketen herriek elkarrekin subiranoki hartutako erabakitik aterako da. Lankidetzaren horizontalean oinarritutako eredu, boterea banatzea ahalbidetuko duen solidaritate-sare bat ehuntzea ahalbidetuko duena eta administrazio periferikoa administrazio zentralaren mendekoa izatearen ikuspegia gaituko duena.

Gure eredu federalak gure indargune nagusietako bat izan beharko luke. Euskobarometroaren datuen arabera, euskal herritarren % 34k federalismoa aukeratzen dute Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanak arautzeko esparru egokitzat, eta, aldi berean, antzeko babes du nazionalisten eta ez-nazionalisten artean (heren bat, gutxi gorabehera). Ehuneko hori independentziaren aukera babesten duen % 21a baino dezente handiagoa da, eta eredu zentralistagoa babestuko lukeen % 4 eskasa baino askoz handiagoa. Hala ere, herritarren % 37k egungo eredu autonomikoaren alde egiten jarraituko luke.

Federalismoak, horrenbestez, babes handia du Euskadin, eta azpimarratu behar dugu Ezker Anitza-IU dela eredu hori argi eta garbi defendatzen duen indar politiko bakarra. Beraz, lan pedagogiko eta propaganda lan bati ekin behar diogu, eredu errepublikano federalak arlo ekonomikoan, sozialean eta nazionalean dituen bertuteak euskal gizarteari jakinarazi ahal izateko, eta, aldi berean, jendearen aurrean proiektu argi eta zehatza duen erakunde politiko gisa kokatzeko: federalismo errepublikanoa. Gizarteak Ezker Anitza-IU izena erreferente errepublikano eta federalista gisa hautematea lortu behar dugu. Federalismoa errepublika hitzaren eta gure erakundearen etiketa iraunkor gisa ezagutua, aitortua eta elkartua izan dadin lortu behar dugu.

Defendatzen dugun Estatu Federalak bere batasuna berau osatzen dutenen borondate aske adostuan oinarritzen du, betiere Konstituzio Errepublikanoaren esparruan. Hona hemen proposatzen dugun federalismoaren ezaugarri batzuk:

1. Federalismoa ez da proiektu itxi bat; aldiz, eta batez ere, Espainiar Estatuako herri guztiei eta herritar guztiei irekitako prozesu bat da.
2. Federalismoa ez da erabat eraikitzen estatutu bat edo beste bat erreformatuz; aitzitik, argi eta berriaz esan nahi du prozesu konstituziogile bat ireki behar dela, egungo konstituzioa gaituko duen eta Estatu osatzen duten identitateak sartuko direla bermatuko duen konstituzio berri bat egiteko prozesu parte-hartzaile baten bidez.
3. Federalismoan, Estatu lurralde federatu bakoitzak, harekin duen itun federalean, libreki onar ditzake Konstituzio Federalean agertzen diren eskumenak, edo Estatu Federalari eskuordetu diezazkioke.

4. Federalismoan subiranotasuna ez da eragile politikoaren edo epaileen esku egongo. Herritarren esku soilik egongo da. Hori dela eta, atxikimendu askeko federalismoan, erabaki garrantzitsuak hartu behar diren bakoitzean, erreferendumak deituko dira, eta gizarteak gehiengoz adierazitako borondatea errespetatuko da. Zalantzarik gabe, printzipio hori Euskadiri aplikatzeak esan nahi du Ezker Anitza-IUk aitortzen duela euskal gizarteak eskubidea duela aske eta demokratikoki erabakitzeko bere etorkizun politikoa. Hain zuzen ere, Estatuarekin izan nahi duen erlazio-eredu hori libreki erabakiko duen gizarte horri proiektu federal bat eskaintzen diogu.

5. Azkenik, esan behar dugu gure eredu federala nazionalitatearen arteko solidaritatearen oinarritutako eredu dela, Estatuaren aberastasun politiko eta instituzionalari eutsiz, baina egungo ekarpenekin dinamizatuta, uneko gizartearen eskaerekin eta kanpoko ekarpenekin aberastuz. Estatu sozial oso bat eta kulturarena ere izango dena, eskubide indibidual zein kolektiboak defendatzea bermatuko duena. Errepublikari federal bat, barne hartzen dituen kultura desberdinak bultzatuko dituen eta eleaniztasuna eta kultura aniztasuna bermatuko dituen.

Estatutu berria eta euskal erakunde arkitektura

1979ko Gernikako Estatutuak autogobernu maila nabarmena izatea ahalbidetu du, eta sentsibilitate politiko oso desberdinen arteko itun zabala ere bai, guztiena izan ez arren. Gainera, Euskadiko kaleetan trantsizio ez-baketsuaren testuinguruan gertatu zen.

Estatutu hori garatzeak elementu oso positiboak ekarri dizkio instituzionalitateari eta euskal gizarteari, baina baita ez betetze garrantzitsuak, aldean arabarako interpretazioak eta estatutuarekin zerikusi gutxi edo batere ez zuten negoziazioetan truke txanpon gisa erabiltzea ere.

Gure autogobernua eguneratzeko unea dela uste dugu, baina garrantzitsua da jakitea zertarako. Ezker Anitza-IUn argi daukagu autogobernu gehiagok balio izan behar duela Estatuarekin dugun harremana ez ezik, dena erabakitzeko gaitasuna izango duen etorkizun bat eskaintzeko: gure eredu sozioekonomikoa, lantokietako demokrazia, zerbitzu publikoak eta, azken finean, komunitateak komunitatearen gaitan parte hartzea.

Euskal gizartea plurala da, askotarikoa, identitateagatik, jatorriagatik, generoagatik, klaseagatik, eta abarregatik, eta dimentsio horiek, argi eta garbi, jasota egon behar dute Estatutu berri batean. Gizarte aurreratu batean bizi gara, eta 1979an zeuden erronkak ez bezalakoak ditugu: aldaketa sakonak lan-munduan, zahartze demografikoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren premia larria, klima-aldaketa, gizarte-aniztasuna, etab.

Gernikako Estatutuari buruz herritarrek duten pertzepzio anitzak direla eta, behartzen gaitu autogobernua eguneratzeko eta zabaltzeko bideak honako hauetan oinarritzea: hobeto bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko dugun gaitasuna indartzea eta kezkatzen gaituzten gaiak buruz gehiago erabakitzeko borondateari bide ematea.

Hortaz, autogobernua berrasmatzea Gernikako Estatutua sortu zuen euskal itun sozialaren oinarriak modu irekiagoan eta inklusiboagoan birmoldatzetik igaro behar da. Egungo eta etorkizuneko autogobernuaren euskarriek helburu sozial komunak izan behar dituzte, aurrerapen sozial eta demokratikoari helduta.

Bizitza duina, bizitza hobea, bizikidetzatza hobea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu behar ditugu, eta gehiago erabaki behar dugu. Autogobernua helburu

komun horiek posible egingo dituen topagune bihur daiteke eta bihurtu behar du. Gure proposamenak, ildo horretan, karga sozial handia du.

Gizarte-, ekonomia- eta lan-dimentsioek izan behar dute etorkizuneko Estatutu berri baten bizkarrezurra. Askatasunean eta berdintasunean bizitzeko eta bizikide izateko arauz hornitzen bagara, denei giza existentzia duina ziurtatzeko jomuga partekatzen dugulako da. Muga horien barruan, eskubide osoko herritarrak garela aitortzen dugu. Proposatzen dugun itun soziala euskal herritarrek berretsitako Estatutu berri batean zehazten da, baina ez da horretara mugatzen.

Itun sozial bat, lurralde barruko eta lurralde arteko solidaritatearen dimentsio garrantzitsu bat izango duena Estatuko beste lurraldeekin. Karga sozial handia izateaz gain, sortu nahi dugun itun soziala hondoko eta epe ertain eta luzera begirako itun politikoa da. Ez datza administrazio edo eskumenak areagotzean. Gernikako Estatutuaren garapena eta ibilbide historikoa osatzea dakar, baina autogobernuari buruzko akordio berriak ez du eskumenen kantitatean soilik arreta jarri edo horiek neurtu behar; aldiz, gehiengo sozialarentzako eskubideak areagotzean, Euskadin bizi diren biztanle guztientzat eskubide horiek benetan aitortzean jarri behar du arreta.

Ildo horretan, arauak eta erakundeak sortzen eta erreformatzen jarraitu behar dugu, defendatzen ditugun balio komunek gizarte osoari eragin diezaioten eta ongizate, eskubide eta aukera bihur daitezten. Horretarako, fiskalitate egokia, behar den mailako udal-finantzaketa eta erakunde-arkitektura beharko ditugu, maila guztietan eraginkortasunez eta efizientziaz beharrezkoak diren ekintzak praktikan jarri eta koordinatu ahal izateko.

Ildo horretan, Euskadin Estatutu berri baterako itun berriaren barruan, aurrera egin behar da administrazio-arrazionaltasun handiagoa lortzeko, tokiko administrazioak eta Eusko Jaurlaritza indartuz.

Hasteko, foru-aldundiei buruzko eztabaida ireki behar da, haien eginkizunei buruz eta herrialde hain txikian administrazio egitura horrek duen zentzuari buruz. Gaur egungo banaketa administratiboa gainditu behar da, egitura arrazionalago baten mesedetan, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeen inguruan antolatuta, herritarrek erabakietan parte-hartze handiagoa izateko, oinarrizko eskubideak berma daitezten eta egitura administratiboak eraginkorrak izan daitezten.

Ezker Anitza-IU tradizionalki indar munizipalista izan da, eta, horregatik, uste du udalerriek izan behar dutela Euskadiko egitura instituzionalaren oinarria; erakunde horiek izan behar dituzte zerbitzu publikoak ematearen eta herritarren eskubide eta erantzukizunen arloko oinarrizko eskumen administratibo eta exekutibo guztiak. Udalerriek ondo finantzatuta egon behar dute, eta eskumen arauemaile zabalak izan behar dituzte, herritarrek demokrazia zuzena baliatzeko aukera ematen duten jurisdikzio-mugak gainditzen ez dituzten gaietan.

Jakin badakigu udalerrri txikienetan zerbitzuak beren gain hartzeko egitura mankomunatuak antolatu behar direla; hori horrela, uste dugu udalerriek eskualde mailako egungo figura juridikoak sustatu behar dituztela, hala nola mankomunitateak, eskualdeak eta kuadrillak, lankidetzak aukera eman diezaien herritar guztiei zerbitzu eta eskubide berberak izateko, bizi diren udalerrriaren tamaina gorabehera.

Gainera, udalei beren lanean laguntze aldera, foru-aldundiek udalei eskualdatu behar dizkiete herritarrentzako zerbitzuen kudeaketarekin zerikusia duten eskumenak, eta udal-jarduerari laguntzeko proposamena egin behar dute.

Azkenik, Eusko Legebiltzarrak Ekonomia Itunean jasotako zergen arloko eskumenak berreskuratzearen alde egiten dugu, baita udal-mugak gainditzen dituzten betearazpen eta kudeaketa eskumenak berreskuratzearen alde ere, herrialdearentzat zerga politika bakarra ezartzeko xedearekin; hartara, gai gehienetan eskuduna izango den Eusko Jaurlaritzak baliabide ekonomikoak ere izango ditu zerbitzu publiko nagusien (osasuna, hezkuntza, enplegua, DSBE, etab.) finantzaketari aurre egin ahal izateko.

- **Alternatiba feminista. Hari morea.**
- Feminismoa
- Indarkeria matxistaren aurka borrokatzea
- Sexu- eta ugalketa-desirak eta -eskubideak
- Berdintasuna erantzukizuneko lanpostuetan
- Enplegua eta erantzunkidetasuna

Feminismoa

Emakumeen herritartasun eskubideak oraindik bete gabe dauden eskubide politikoak dira. Emakumeen aukerek eta askatasunek zuzeneko lotura dute benetako demokraziekin. Orain arte, ikuspuntu patriarkal batetik egon da pentsatuta politika demokratikoa, eta horrek mugatu egiten du emakumeek beren eskubideak baliatzea.

Horrela, mugatuta dago eremu publikoetan kondizio berberetan parte hartzea; izan ere, zuzenean edo zeharka, formalki edo materialki esleitutako roler bi ondorio dituzte: alde batetik, emakumeak etxeko eremura derrigorrean atzera egitea; eta, bestetik, emakumeek erabaki- eta botere-eremu esplizituetan ageriko eta erantzukizuneko postuak izatearen aurkako oposizio sutsua egotea.

Hori dela eta, demokrazia paritarioaren helburu bakarra ez da emakumeek edukitzea beraiei dagokien eta orain mugatuta daukaten biztanleriaren % 50eko ordezkagarritasun logikoa, errealitate hori ikusarazteko; horrez gain, justizia soziala egiteko modu bat ordezkatu behar du, hau da, kendutako eskubideak zeharka esleitzea emakumeei.

Pertsona bat, boto bat printzipioa bideragarri egiteak eskatzen du ingurune politiko bat sortzea emakumeak erabat integratuta egon daitezen. Hori lortzea erronka bat izango da; izan ere, ematen diren baliabideak egoera hori bereziki errealitate nabaria bilakatzeko izan behar dira. Parekotasuna, proposamen zeharkakoak, erantzukizun zuzena... demokrazia feminista bat errazten duten faktoreak dira.

Eta bigarrenak esan nahi du bai kontseiluek, bai organoek, instituzioek, batzordeek eta abarrek ordezkari parekidea izateko benetako konpromisoa hartu behar dutela, demokrazia benetan izan dadin demokrazia.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzea

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko borrokatu behar da, bere adierazpen guztietan: eraso fisikoak, indarkeria psikikoa, sexuala edo ekonomikoa, sexu-esplotazioa, etab. Indarkeria hori giza eskubideen urraketa dela deritzogu.

Prostituzioa indarkeria matxista erabiltzeko modurik zaharrena da, patriarkatuaren besoetako bat da. Horregatik, Ezker Anitza-IUK berau abolitzea defendatzen du. Era berean, prostituzioari buruzko iragarkiak eta publizitatea debekatzea defendatzen dugu; izan ere, emakumea merkantzia bihurtzen dute, mafiak ugaritzeari mesede egiten diote eta emakumearen irudi umiliagarria islatzen dute, edo beste edozein motatako sexu-indarkeria hauspotzen dute.

Gure ustez, berdintasunezko gizarte batek feminitate- eta maskulinitate-eredu berriak garatzea dakar, tradizionalki esleitutako rolek pertsonen garapen emozionala eta soziala muga ez dezaten. Berdintasunean hezteak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta errespetuan oinarritutako sexualitatea garatzeari mesede egitea dakar, gatazkak indarkeriarik gabe konpontzen ikasteko hezteak dakar, berdintasun- eta ekitate-balioetan oinarritutako irakaskuntzan hezteak dakar. Hezkuntzaren arloan ezin da onartu gizarte heteropatriarkalaren rol tradizionalak betikitzen dituen edozein erreproduzio sexista. Jolas ez-sexistak bermatu behar dira, emakumeen irudiari eta eskubideei eraso egiten dien publizitatea gaitzetsi behar da, eta emakumeek kulturari, zientziari, kirolari, eta abarri egiten dizkieten ekarpenak aldarrikatu behar dira.

Ildo horretan, Ezker Anitza-IUK LOMCEk ezabatutako berdintasunerako eta genero indarkeriaren aurkako hezkuntza berreskuratzea eskatzen dugu, berdintasunaren kulturaren irakastea delako desberdintasuna desagerrarazteko bide nagusia.

Sexu- eta ugalketa-desirak eta -eskubideak

Ezker Anitza-IUn pertsonen sexu- eta ugalketa-eskubideak defendatzen ditugu, baita amatasun/aitatasun askea izateko, metodo antisorgailuak eskuratzeko, haurdunaldia borondatez eteteko eta behar diren laguntza bidezko ugalketako teknikak eskuratzeko eskubideak ere. Prestazio horiek eta beste batzuk kontuan hartu behar dira osasun-sistema nazionalan unibertsean eta doan eskaintzen diren artean. Hori dela eta, Haurdunaldiaren Borondatezko Etetearen (HBE) erabateko despenalizazioa eskatzen dugu Zigor Kodean. Horren abiapuntu izango da emakumearen erabaki askean oinarritutako HBERako eskubidearen aitortza, eta lehen 24 asteetan etena osasun publikoan gauzatzea bermatu beharko da. Gainera, haurdunaldia edozein unetan etetea bermatuta egon beharko da, emakumearen bizia arriskuan baldin badago. Era berean, abortatzeko eskubidea bermatuta izan beharko dute 16 eta 18 urte arteko gazteek.

Ezker Anitza-IUK defendatzen du emakumearen gorputza INOIZ ezin dela izan salerosketarako merkantzia; hortaz, alokairuko uteroak ezin dira legeztatu, karga biologikoa duten ondorengoak izatea nahi bat delako, ez eskubide bat.

Enplegua eta erantzunkidetasuna

Genero-berdintasuna benetakoa izan dadin, ezinbestekoa da edozein eremutan generoaren araberrako segregazioari aurre egitea, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala desagertzetik hasita. Beharrezkoa da lan-segregazioaren eta hezkuntza-segregazioaren aurkako eta feminizatuenak dauden lan-sektoreen prekarizazioaren aurkako plan bat. Ildo horretan, ezinbestekoa da gure gizartearen iraupenerako eta ongizaterako funtsezkoak diren zaintza-zereginekin –ordainduak eta ordaindu gabek– lotutako lanak baliozkotzea; pertsonen ongizatearen aurretik irabazi ekonomikoa besterik baloratzen ez duen mundu bati erantzun politikoa emateko.

Era berean, beharrezkoa da berdintasun-planak eskatzea gure lantokietan, eta, erakundeek salatu egin behar dituzte plan horiek jasotzen ez dituzten eta zerbitzu publikoak kudeatzen diharduten enpresen kontratazioak.

Bestalde, emakumeek lanaldi osoko enplegurako irispidea izatea exijitu behar da, eta, horretarako, etxeko erantzunkidetasunean sakonduko duten politikak garatu behar dira. Era berean, jaiotzagatik eta/edo adopzioagatik baimen besterenezinak ezarri behar dira guraso bakoitzarentzat, eta baimen horiek, progresiboki, iraupen bera izan beharko dute. Hori da seme-alaben hazkuntzan eta zaintzan erantzunkidetasun osoa arautzeko bide bakarra.

Berdintasuna erantzukizuneko lanpostuetan

Hauteskunde Legea aldatzea, hauteskunde zerrendako kideak benetan % 50ean emakumeak izan daitezen, eta Legean benetako parekotasun instituzionala ezartzeko mekanismoak ezartzea. Gizartearen eta hezkuntzaren arloko aldetak bultzatzea, Berdintasun Legean jasotako printzipioak benetan bete daitezen, gizonek eta emakumeek gizartearen, ekonomiaren eta politikaren eremuetan presentzia orekatua izan dezaten.

Ezker Anitza-IUK konpromisoa hartzen du hauteskunde-zerrendetan parekotasuna sustatzeko, ordezkaritza postuetan genero-berdintasuna erdiesteko eta erantzukizun politikoko postuetan emakumeen presentzia sustatzeko.

- **Demokrazia ekonomikoa eta soziala. Hari gorria.**

COVID-19aren krisia agerian uzten ari da, Kapitalismoa dela gaur egun gizateriari planteatzen zaizkion arazo guztien kausa. Baliabideak harraparitzetik ingurunea gehiegi ustiatzeraino, kapitalaren mozkina handitzeko helburu bakarrarekin. Kapitalismoak, sistema ekonomiko gisa, erakutsi du ez dela eraginkorra gizadiarentzat eskuragarri dauden baliabide itzelak kudeatzeko orduan, eta ez dela gai baliabide horiek modu justuan erabiltzeko herritar guztien bizitza duina lortzeko. Epe motza, egunetik egunera gero eta basatiagoa den lan-esplotazioa eta ingurumena suntsitzean bere errua bere gain ez hartzea sistemaren esentzian sustraituta daude; etekin handiena kapitalisten ahalik eta gutxienerako. Joera horren guztiz kontrakoa sistemak berehala kanporatzen edo asimilatzen du, kapitalaren interesentzat kaltegabea den zerbait bihurtu arte.

Ekoizpena ahalik eta gehien murriztu den eta espekulazioak areagotzen jarraitzen duen gizarte honetan, kapitalismoaren helburuen artean ez dago mundu mailako krisi ekologikoari, sektore txiroenen goseari edo lan-prekarietateari aurre egitea.

Euskadik, EAJren eskutik, ez die ihes egin pixkanakako desindustrializazioan sakontzen jarraitzen duten ekoizpen eraldaketei eta Espainia osoan industria birmoldatzeko eta desegiteko prozesuei. Eraldaketa horiek, hasiera batean, PSOEko gobernu zentralek sustatu zituzten, eta PPren ondorengo gobernuak sendotu. Eraldaketa horiek giltzarriak izan dira gure herrialdea gaur egun ekonomia periferiko gisa eratzeko; eredu horretan, lan prekarioa areagotu egin da, nolabaiteko kalitateko enpleguen kalterako.

Espainia EBn sartzeak areagotu egin zuen gure ekonomia lanaren nazioarteko banaketan sartzeko era berezi hori, eta merkatu librearen dinamikaren beraren esku geratu zen. Testuinguru horretan, Espainiako eta Euskadiko ekonomiek lanaren nazioarteko banaketan duten lekua merkatu librearen dinamikaren esku dago guztiz. Eta gurea bezalako ekonomia kapitalista batekiko mendekotasuna kontuan izanik, emaitza da herritarrek erakunde

politikoekiko gaitzusteia izatea, industriaren deslokalizazioa eta kapitalen askatasuna ahalbidetzen dela ikusita, helburu bakarra errentagarritasun handiagoa lortzea izanik.

Gure herrialdeko kapitalismoaren egungo krisia eta ongizate-estatuaren narriadura atzerriko kapitalarekiko mendekotasunaren seinaleak dira, eta proiektu neoliberalaren helburua da munduko kapitalismoan txertatu ahal izateko kondizioak erraztea, prekarizazio-prozesu baten eta lan-esplotazio handiagorearen bizkar.

Akats larria egingo dugu pentsatzen badugu krisia koronabirusaren epidemiaren emaitza dela. Egia da egoera azkartu duen faktore bat izan dela. Baina agertokiaren atzean begiratu soil bat egiteak erakusten du 2007ko krisiaren ondorengo hazkunde ekonomikoaren aldiak jende gehiegi utzi duela atzean eta prekarizazioa bizimodu gisa ezarri dela normaltasunean.

Langile-klaseak eta herritarren sektoreak izan dira ondorioak ordaindu dituztenak, Estatuko koalizio gobernuek babes neurriak ezarri baditu ere; hau da, gizarte-erretiro delakoa ezarri bada ere. Izan ere, beharrezkoa da, baina eskasa. Erretiroko ekonomia mende zeudenak edo hein handian enplegu prekarioen mende zeudenak bizitzeko nahikoa diru-sarrerarik gabe geratu dira. Jateko ABEEE baten menpe geratu direnak ikusi dute diru-sarrerak murrizten ari zitezkiela eta gabezia materialak zituztela, eta, aldi berean, gizarte-prestazioak kobratzeko itxaron egin behar izaten zutela.

Hitz batez, pandemiaren ondorengo *shock* ekonomikoari aurre egin behar diogu, Euskadiko biztanleen % 20 pobrezia eta gizarte-bazterketako arriskuan baitaude. Langabezia da desberdintasun soziala izugarri haztearen dinamika elikatzen duen gizarte-bazterketako prozesu horren adierazpen nagusietako bat. Dagoen lana banatzea premiazkoa da, eta aberastasuna modu bidezkoagoan banatzea lortzeko bide eraginkorra izango litzateke. Horrek esan nahi du Confedebak gaurdaino eraman gaituenaren kontrako noranzkoan joatea.

Ezker Anitza-IUrentzat alternatiba ez da ez neoliberalismoa, ezta keynesianismoa ere, sozialismoa baizik: Ezkerreko fronte zabala batean batzeko prozesuan, gure ideia eraldatzaileei uko egin gabe, alternatiba hau nahitaez gertatu behar dela uste dugu: herrialdearen berrindustrializazioa eta interes orokorrean oinarritutako sektore estrategikoen kontrol publikoa, baita zerbitzu publikoen horniduraren eta errenta eta ondare handietarako zerga-bilketaren maila handitzea ere.

Krisi honi duela hamarkada bat gertatu zenaren ezaugarri izan ziren austeritate-politikekin ez heltzeari ongi baderitzogu ere, hori ez da nahikoa. Ez gara konformatzen; izan ere, uste dugu ezinbestekoa dela gure etorkizunaren agintea hartzea, eta horretarako, begirada kolektibo gehiago, botere publiko handiagoa eta merkatu gutxiago behar ditugu. Eredu ekonomiko eta sozial aurreratu bat, ekonomia modu bidezkoan, justuan eta jasangarrian demokratizatuko duena. Hori bultzatzeko, ezinbestekoa da benetako Banku Publiko bat izatea, banku-erakundeetan gordailututako gizartearen aurrezkiak gizarte-premiei erantzutera, kalitatezkoak eta nahikoak diren zerbitzu publikoak garatzera eta langabezia desagerraraztera bideratu daitezela.

Ezin dugu onartu neoliberalismoari denbora-parentesi bat bakarrik jartzea, publikotasunera joz galerak sozializatzeko, eta, ondoren, langile-klaseari eskubideak eta bizi-maila galtzea eskatzeko, merkatuak irabazi pribatuak pilatzen dituen bitartean. Modu mugatuan jarduteak, gehiago soziala babesteko eta jendearen bizitza hobetzeko beharrezkoak diren sustapen-politikak ez lantzeaz gainera, finantza publikoen egonkortasuna hondatzen du eta zorra izugarri handitzen du. Beharrezkoa da zerga-erreforma bidezkoa, nahikoa, zuzena eta

progresiboa egitea eta gure diru-sarrera publikoa handitzea, Eurogunearen batez bestekoaren mailan jartzeko.

Birbanaketa eta ekintza kolektiboko gaitasuna landu behar dira administrazio publikoen bidez; izan ere, ondasun komun mugatuak ditugu, eta gero eta urriagoak eta gero eta eskuraezinagoak dira biztanleriaren sektore zabalentzat. Aberastasuna sortzearen eta irabaziak maximizatzearen artean sortutako loturak aberastasun hori sortzea ahalbidetzen du soilik ingurumenaren narriadura jasanezin eta bizitzarekin bateraezina den baten lepotik. Horregatik, justizia egiteko aukera bakarra aberastasuna eskuratzeko bidezko banaketa egitea da. Pobreziaren aurka borrokatzea aberastasunaren metaketaren aurka borrokatzea delako. Horrela, errentak birbanatzea lortzeko hartu beharreko neurrietako batzuk hauek dira: aberastasun eta enpresa handien zerga-iruzurraren aurka egitea, SICAVak ezabatzea eta zerga-ikuskapenerako plaza gehiago ateratzea.

Demokrazia ekonomikorik gabeko demokrazia politiko eta soziala kontraesana da. Demokrazia soziala ezinezkoa da demokrazia ekonomikorik gabe. Horrek esan nahi du ezkerrek, batetik, ongizate-sistemak defendatu behar dituela, eta, bestetik, estatu sozial batean beharrezkoak diren aliantzak eraikitzen saiatu behar duela. Hau da, eskubide bakoitza zerbitzu edo botere publiko batek bermatuta egotea, administrazioak eta zerbitzu publikoak argaltzeko proposamen neoliberalaren aurkako ofentsiba gisa.

Zerbitzu publikoek herritarren oinarrizko premiak asetzeko aukera ematen dute, unibertsalki eskuratzeko, diskriminaziorik gabeko eta doako kondizioetan. Gizarte-kohesioa ahalbidetzen duten eta zeharkako soldata irudikatzen duten zerbitzu horiek lortzeko, langile-klaseak ahalegin eta borroka handia egin behar izan du azken bi mendeotan.

Nolanahi ere, esparru estrategiko neoliberalak eta kapitalismo globalaren egungo fasearen kondizioek benetako gerra piztu dute zerbitzu publikoen aurka. Horrek esan nahi du, Euskadin EAJren politiken eta kudeaketaren eskutik gertatzen den bezala, zerbitzu publikoak ondasun publikotzat jotzen diren esparru batetik, eta, hortaz, altxor publikoaren kontura finantzatzen diren eta administrazio publikoak zuzenean hornitzen dituen esparru batetik, beste batera igarotzea, zeinetan Eusko Jaurlaritzak enpresa pribatuek emandako zerbitzu batzuen bideratzaile eta arautzaile gisa jarduten duen –kudeaketaren arduradunak, eta, azkenik, azpiegitura horien jabeak– eta enpresa horiek irabazi handiak lortzen dituzten baliabide publikoen bizkar. EAJk eta PSEk ere Euskadin aspalditik bultzatu dute era guztietako zerbitzuak kanporatzeko eredia.

Pribatizazioen aurrean, guk botere publikoa proposatzen dugu, zerbitzu publiko gehiago, eta horien izaera unibertsala defendatzen dugu, errenta bidezko hautaketaren aurrean. Ez dugu nahi zerbitzu publikoak eta ondasun komunak gehiago pribatizatzea, baizik eta «berrudalekotzea» eta jabetza publiko bihurtzea. Ekonomiaren sektore estrategikoetan enpresa publiko indartsuak egotea defendatzen dugu, hala nola bankan, energian, garraioan edo telekomunikazioetan. Gainera, uste dugu ezinbestekoa dela Euskadiko zerbitzu publikoak indartzearen alde egitea, bereziki hezkuntza eta osasuna:

Hezkuntza

Ezker Anitza-IUK, ororen gainera, hezkuntza publiko, laiko eta doakoaren aldeko apustua egiten du, haren bidez bakarrik bermatzen baita hezkuntza eskubide unibertsala berdintasun eta demokrazia kondizioetan. Era berean, hezkuntza publiko eta doakoa da gizarte kohesioa lortzeko eta pertsona berdintasunean, aske eta era kritikoan prestatzeko oinarria. Nolanahi ere, eskuinarentzat, hezkuntza beti izan da ideologia nagusia berresteko elementu bat, eta horren emaitza dira iraganera bultzatzen gaituzten legeak (adibidez, LOMCE, Hezkuntza Lege berriarekin indargabetua hein handi batean). Ezker Anitza-IUren ustez, beren bizi proiektu autonomoa eraikitzeko gai diren herritar askeak sortzeko tresna izan behar du hezkuntzak.

Euskadin LOMCEn ezarritako printzipio horiek aplikatzea ekarri zuen Heziberri prozesuak eta, hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragileekin batera, prozesu parte-hartzaile bat abian jarri behar dugu, XXI. mendean kalitatezko hezkuntza publikoa bermatzeko beharrezkoak diren tresnak definituko dituen. Curriculum laikoa, kulturartekoa, inklusiboa, euskalduna, feminista eta ekologista sortzea, ikastetxeek eta hezkuntza-komunitateak garatuko dutena, beren autonomia pedagogikoaren arabera. Eskolatik kanpo garatuko da edozein erlijio, haien ekitaldiak edo sinboloak barne.

Gure jarduketa-ildo nagusiak garatu ditugu gure hauteskunde-programetan, baina, logikoki, ezkerreko alderdi bat izanik, ehuneko ehun doakoa den eskola publikoaren aldeko apustu irmoa egiten dugu, 0-3 urte arteko etapatik unibertsitatera bertara, eta, horretarako, aurrekontua pixkanaka handitu behar da, UNESCOk gomendatutako % 7ra iritsi arte. Eskola publikoak kudeaketa demokratiko baterantz eboluzionatu behar du, hezkuntza-komunitateak berak eta haren ingurune sozialak bertan parte hartu behar du, baina sistema publikoan bertan, curriculum-, metodologia- eta antolakuntza-aldaketak txertatuz ikasleen aniztasunari erantzun hobek emateko, arreta berezia jarrita zailtasun gehien dituztenei, eta baliabide gehiago eskainita gizarte-desabantailan dauden ikasle gehiago dituzten eremu eta ikastetxeei, bai klaseagatik, bai jatorriagatik. Hezkuntza-sistema publiko euskaldun baten alde egiten dugu, gaur egungoak egiten ez duen bezala hizkuntza-eredu bakarra izango duena, eta aurrera egingo duena euskara komunikazio-hizkuntza izango duen eta gizarte osoan gure hizkuntzaren erabilera normalizatzeko eragile garrantzitsua izango den eredu bat lortzeko, ikastetxe bakoitzaren plangintzaren esparruan hirueletasun eraginkorra lortzearekin batera.

Hezkuntza-itunak progresiboki indargabetzea, itunpeko ikastetxe pribatuak ikastetxe publikoen sare bakar batean beren borondatez eta modu negoziatuan sartuz; horixe da bide bakarra hezkuntza-sistemaren ekitatean arrakasta lortzeko. Berehala indargabetuko dira sexuagatik diskriminatzen duten ikastetxeekin egindako itunak eta ikasleak arrazoi ekonomiko, ideologiko edo bestelako ezaugarri kultural edo pertsonalengatik hautatzeko ezkutuko mekanismoak erabiltzen dituztenekin egindakoak.

Eskola-jantokien eskandaluaren ondoren, gainera, EAJk eta PSEk sustatutako kudeaketa-ereduen aurrean, zeinek *catering*-aren oligopolioa sortzea eta kudeaketa txarra ekarri dituzten, eskola-jantoki autogestionatuen ereduak aztertzearen, bultzatzearen eta sustatzearen aldeko apustua egiten dugu, haien printzipioak kalitatea, *0 km* printzipioa (hurbiltasuna eta tokiko produktuak) eta sasoikoa izatea oinarri dituztenak, tokiko zenbait esperientziek aurreratu duten gisara. Bestalde, erakunde eskudunei (udalak, foru-aldundiak) eskatzen diegu laguntzeko

aisialdiko jarduerak sustatzen, udan eta Gabonetako eta Aste Santuko oporretan jangelak irekitzeko; horrela, jolas-jarduera horien bidez, gizarte-egoera ahulenetako haurrak behar bezala elikatzeko helburua bermatuko da.

Unibertsitateak, aldi berean, gizartearen ispilua izan behar du, eta gogoeta egiteko eta ezagutzan aurrera egiteko espazioa; gainera, eredu merkantilizatutik eta gaur egun martxan jartzen ari den merkatura bakarrik bideratuta egotetik urrundu behar du. Ezker Anitza-IUK unibertsitate publikoaren alde egiten du, UPV/EHUren alde, eta helburu gisa planteatzen dugu unibertsitate-irakaskuntzak doan izatea, eta, hori lortu bitartean, gutxieneko tasak ezartzea soldata-beken sistema orokortuaren bidez. Horren xedea da ekonomia-egoera ahulean dauden sektoreen irispidea bermatzea. Unibertsitate publikoen behar besteko finantzaketa publikoa bermatzeko, gutxienez BPGd-aren % 2 bideratuko da.

Halaber, prebentzioan ere eragina izan behar da, hainbat neurriren bitartez, hala nola hezkuntza-arlo guztietan sexu-aniztasunaren eremuko prestakuntza ematea. Ezinbestekoa da berdintasunaren eta aniztasunaren kulturen hezteak; diskriminaziorik ez egitean heziko duen eskola nahi dugu. Irakaskuntzak funtsezko hiru ikuspegi izan behar ditu: genero-ikuspegia, giza eskubideen ikuspegia eta aniztasunaren ikuspegia. Ildo horretan, hiru ikuspegi horiek garatzen dituzten curriculum-programa espezifikoak, jarduketako protokoloak eta prestakuntza-tresnen aldeko apustua egin behar da.

Osasungintza

Osasuna eskubide bat da, eta ez salgai bat; beraz, osasun-sistema publiko eta unibertsal bat defendatzen dugu. Osasuna privatizatzearen aurka gaude, eta osasun-sistema publikoa, unibertsala, integrala, solidarioa eta kalitatezkoa defendatzen dugu.

Ildo horretan, uste dugu garrantzitsua dela sektore sanitarioa eremu publikoan mantentzea, eta zerbitzu privatizatuak berreskuratzea sektore publiko horrentzat (Osakidetza-zerbitzu osagarriak barne, hala nola garbiketa, sukaldaritza-zerbitzua...): titulartasun publikoa, finantzaketa publikoa, kudeaketa publikoa eta hornidura publikoa. Administrazio publikoaren aurrekontuen bidezko finantzaketa zuzeneko zergen bidez egitea, eta ez zeharkako zergen bidez; horrela, edozein koordinketa mota eragotzi eta baztertuko da.

Ezker Anitza-IUrentzat, garrantzitsua da lehen mailako arreta bultzatzearen eta herritar guztiengana zabaltzearen alde egitea, eta, aldi berean, ezinbestekoa da Osasun Sistema Publikoaren kudeaketa demokratikoa bermatzea. Gainera, gure ustez, ezinbestekoa da zerbitzuen eta eskubideen zorroa handitzea, eta honako hauek sartzea: sexu- eta ugalketa-osasuna, haurdunaldiaren borondatezko etetea, aho-hortzen osasuna, osasun mentala, zainketa aringarriak, minaren tratamendua eta heriotza duina izateko eskubidea.

Bestalde, Osakidetza-eraginkortasuna eta kalitatea ziurtatu behar dira, eraginkortasuna, eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko neurriak ezarriz, baliabideen erabilera hobetuz, eta baliabide horiek behar bezala sustatzeko eta haien sustapen profesionala bermatzeko eta osasun-gastua arrazionalizatzeko langileen arloko politikak ezarriz, Osakidetza gaur egun osasun-arloko inbertsio publiko handitu behar duela kontuan hartuta, finantza-nahikotasuna lortu arte, lehen mailako arreta eta osasun publiko areagotzea lehenetsita. Printzipio horri esker, aurrera egin ahal izango da gaixotasunen prebentzioan, detekzio goiztiarrean eta, beraz, tratamenduan, eta, horrela, gaixotasuna larriagotzea eta tratamenduaren kostu handiagoa saihestuko da.

Ilido horretan, beharrezkoa da osasun-mapak euskal errealitatera egokitzea, kontuan hartuta oraindik ere zenbait eremu, biztanleria-osaera sakabanatua edo dentsitate handia izateagatik, birplanteatu egin behar direla, lehen mailako arretaren maila optimoak lortzeko.

Horrez gainera, beharrezkoa da gastu farmazeutiko handiari heltzea (PPk 2013an sartutako koordainketa ere kontuan hartu gabe); hura optimizatu behar da, Estatuko banatzaile publiko bat sortzea, ikerketa biomediko eta farmazeutikoko politika publiko bat garatzea eta industria farmazeutiko publiko bat sortzea aurreikusten duen politika farmazeutiko bat garatuz, sistema publikoa hornituko duena eta enpresa farmazeutiko handien eta patenteen enpresen aurpegi biko interesetatik urrun ikertuko duena.

Printzipio horiei jarraituz, ezinbestekoa da osasun-mapa berriak eratorritako osasun-zentro berriek kudeaketa zuzena izatea, eta pixkanaka berreskuratzen joatea gaur egun pribatizatuta dagoen eremu eta zerbitzuetan; esate baterako, Tolosan, gaur egun zentro publikorik ez duen eskualde bakarra baita, eta, horren orde, baliabide publikoen bizkar bizi den klinika pribatu bat baitago.

Era berean, zerbitzuaren hornidura hobetu behar da, Osakidetza kudeaketa txarraren saturazioak urtean sortzen dituen osasun pribaturako bideratzeak saihesteko, gastu handia baita diru-kutxa publikoentzat.

Ezker Anitza – IUk konpromisoa hartzen du eutanasia zuzen eta aktiboa eta heriotza duina izateko eskubidea defendatzeko. Horregatik, tematze terapeutikoaren aurka dago, eta pazientearen autonomia printzipioa defendatzen du, funtsezko balio gisa, bizitza-fase guztietan, eta bereziki heriotza-prozesuan.

Azkenik, beharrezkoa da osasun-arloko langileen egoera duintzeko giza baliabideen politika aurrera eramatea, Osasun Sistema Publikoari langile talde nahikoa, prestakuntza egokia eta karrera profesionala eman eta azken hamarkadan galdutako eskubideak berreskuratuz, bereziki lehen mailako arretan.

COVID-19aren pandemiak egoitzetan eta adinekoen artean eragindako hondamenek agerian utzi dute zaintza-sistemaren ahultasuna, kasu askotan erabateko edo partzialki konfinatuta egon diren aldietan bakardadea eta muturreko kalteberatasuna nabari baitira.

Egoitza-eredua enpresa pribatuek kudeatzen dute gehienbat, eta aldundiek asko laguntzen dute diruz. Arrisku eta errentagarritasun gutxiko inbertsio-funtsetarako txolin bat da. Hori guztia ratioak eta lan-baldintzak araututa, Covid19aren larrialdi-egoeran airetik salto egin duena, eta egoiliarren muturreko kasuak argitara atera dituena, baita tratu txar fisikoak ere. Horrez gain, aldundien atsegintasuna azpimarratu behar da; izan ere, ikuskapen-kontrolik ez dagoenez (ikuskapenak alde aurretik jakinarazten dira), egoiliarren eta haien senideen kalteberatasunak baldintzatutako inkestak egiten dituzte.

Babesa ematen dieten elkarten setakeriak eta borrokak eta emakume langileen grebek soilik lortu dituzte konkista txikiak eta, batez ere, sektorearen garrantzia lehen mailan jartzea. Halaber, erabiltzaileek eta senideek benetan ordezkutzen dituzten elkarten bidez parte hartzeko eredu berri bat behar da, Adinekoen Kontseiluaren erakunde eta kooptazio hutsetik harago.

Etxebizitza

Etxebizitza bat eskuratzeak arazo handietako bat izaten jarraitzen du euskal gizartearen zati handi batentzat oro har eta gazteentzat bereziki, espekulazio-ondasun gisa erabili delako.

Euskadi eta bereziki Donostia eta Bilbo Estatu mailan buruan daude etxebizitza bat alokatzeko eta erosteko prezioei dagokienez. Etxebideren datuen arabera, 2018az geroztik, alokairu babestuko etxebizitzaren eskaria hirukoiztu egin da. Aldi horretan, 7.535 alokairu eskaera egin dira, eta 1.977 hasi dira eraikitzen soilik; horietatik % 34, 2020an. Gainera, alokairuko parke publikoa (% 12,1), hainbat urtez jabetzako etxebizitza publikoaren aldeko apustua egitearen ondorioz, Estatuko baxuenetako bat da, Ceuta, Extremadura eta Gaztela-Mantxaren gainetik dago bakarrik.

Hori guztia, Euskadik 2015etik Etxebizitzaren Lege bat izan arren, etxebizitzaren helburu soziala ezartzen duena; bi urtetik gora hutsik daramaten etxebizitzak desjabetzea aurreikusten du, etxebizitza hutsetarako kanon bat ezartzen du eta alokairuko etxebizitza publikoak bakarrik eraikitzea aurreikusten du, besteak beste.

Halaber, turismoak lurralde osoan izan duen gorakadak, alokairu turistikorako etxebizitzak ugaritzearekin batera, alokatzeko zein erosteko etxebizitzak garestitzea eragin du, eta pertsona asko hirien erdigunetik kanporatzea, bereziki Donostian eta Bilbon.

Era berean, aipatu behar da higiezinaren funtsak (putre-funtsak) ere indarrez sartu direla Euskadin, alokairuko etxebizitza publikoen sustapenekin ere geratu direla, eta maizterrei aurre egin ezin dieten kondizio berriak ezarri dizkietela.

Horrenbestez, premiazkoa da etxebizitzak bizitzeko direla eta espekulatzeko ez direla bermatzea xede duten politika publikoak ezartzea. Etxebizitza-parke publikoa handitzea helburu duten politikak, etxebizitza hutsak egotea amaituko dutenak (2018. urteko datuen arabera, 20.000 inguru Euskadin), alokairuen prezioak arautuko dituztenak eta bizi proiektuak garatu ahal izateko leku bat bermatuko dutenak.

Etxebizitza bat izateko eskubide unibertsala ukatzeak esan nahi du ezin dugula bizitza-proiekturik planteatu ere egin. Gazteek murriztuta ikusten duten oinarrizko eskubideetako bat da, nahiz eta Espainiako Konstituzioak herritarrek etxebizitza bat izateko eskubidea dutela jasotzen duen. Errealitatea da gazteek zailtasun berezia dutela eta orain arte martxan jarritako politika publikoak ez direla baliozko irtenbideak.

Datu ofizialen arabera, eta espekulatuzaileek sortutako higiezinaren burbuila lehertzearen ondorioz pisuen prezioak eta interes tasak jaitsi egin badira ere, EAEn gazte batek soldataren % 62,8 gorde beharko luke hipotekaren edo alokairuaren hileroko ordainketari aurre egiteko, edo ia-ia bikoiztu egin beharko lituzke diru-sarrerak etxebizitza ordaintzeko soldataren % 30 bideratu ahal izateko (% 78'1etik jabetzako etxebizitza libre baterako, % 112'8ra arte alokairuko etxebizitza baterako).

Euskal gazteak emantzipatzeko batez besteko adina 30 urtetan mantentzen da; erdia baino gehiago, % 52, familiaren etxean bizi da oraindik, eta 10etik 4k ezin dute emantzipatzea planteatu ere egin, horretarako diru-sarrerak nahikorik ez dutelako.

Hortaz, errealitate hori kontuan hartuko duen etxebizitza politika bat egin behar da. Euskadiko etxebizitza hutsen parkea ezabatzen aurrera egin behar da, merkatu babestura aterata; soldataren % 30etik gorako gastua inoiz ekarriko ez duten interes-maileguak eta gazteentzako alokairu sozialak ematea bermatu behar da, bereziki baliabide gutxien dituztenei zuzenduta.

Baina etxebizitza mobilizatzea ez da nahikoa etxebizitza duina izatea bermatzeko. Euskadi Estatuaren etxebizitza-parke zaharrena duen erkidegoetako bat da, eta, kasu askotan, 60ko

eta 70eko urteetako kanpainako hirigintzaren eta gure orografiaren ondorioz, mobilizatu nahi ditugun etxebizitza horietako asko Eusko Jaurlaritzak berak azpietxebizitza gisa katalogatzen ditu. Igogailurik ez izateak, isolamendu-arazoek, mendeko pertsonentzat ezin hobeak ez izateak edo zaharrak izateak edo berogailurik ez izateak, askotan, gobernuak berak duintzat jotzen ez dituen eta alokairu-merkatura ateratzeari uko egiten dion etxebizitzetan bizi diren familiak egotea eragiten dute, gutxiegitzat jotzen direlako.

Hain zuzen ere, horregatik, etxebizitza hutsak mobilizatzeko politikarekin batera, erreforma integraleko, energia-optimizazioko eta irisgarritasun bertikaleko zein horizontaleko programa bat egin behar da, etxebizitza horiek bizigarritasun-baldintza ezin hobeetan irits daitezen behar dituztenengana. Horrelako programak, gainera, Eusko Jaurlaritzak udalekin lankidetzan bultzatutako enplegu-plan bermatuen bidez antola litezke.

Laburbilduz, etxebizitza izateko eskubidea botere publikoen esku jartzea pixkanaka, eta ez eraikitzaileen eta merkatuen esku.

- **Eredu ekonomiko eta garapen-eredu berde eta justua. Hari berdea.**

Duela hamarkada batzuetatik bizi dugun krisi ekologikoak, gero eta inpaktu nabarmenagoak eta muturrekoagoak dituenak, markatu behar ditu gure erakundearen eta gure proposamen sozioekonomikoaren politikak. Jada ez dugu guk edo beste erakunde ekologiko batzuek bakarrik defendatzen agerikoa den hori; aitzitik, NBEk klima-aldaketa kontrolatzeko kontratatutako adituek beraiek ere onartzen dute, IPCC taldeak egiten dituen txostenei buruz berriki eginiko filtrazioetan. Seigarren Txostenean adierazten dutenez, klima-kolapsoa saihesteko modu bakarra etengabeko hazkundean oinarritutako edozein eredu baztertzea da.

Horrek frogatzen du kapitalismoa huts egindako eredia dela, orain arte defendatzen aritu garen moduan, eta, orain, giza arrazaren sostengua bera arriskuan egon daitekeela nabarmena denean, zientzialariak arazoari izena jartzera ausartu dira: KAPITALISMOA. Horren erakusgarri dira txostenean dauden honelako paragrafoak: «Zientzialari batzuek azpimarratzen dute klima aldaketa industria-garapenak eragiten duela, eta zehatz-mehatz, gizarte kapitalistaren izaerak eragindako garapen sozial eta ekonomikoaren izaerak, eta, beraz, azken finean, jasanezintzat jotzen dute».

Klima-aldaketaren ondorioek, baita kutsadurak eta baliabideak agortzeak ere, kalteberatasun handiko egoera batera garamatzate, eta Euskadi ez da horren eraginetik kanpo geratzen. Duela gutxi arte prebentziozkoak ziren neurriak ezinbestekoak eta urgenteak dira orain. Gaur egun beharrezkoa da lau jarduketa eremu handi aldarrikatzea:

- Berotegi efektuko gasen emisioak gutxitzea, helburu kuantifikagarriak dituzten urteko planen bidez, berotze globala eragozteko eta arnasten dugun airearen kalitatea hobetzeko.
- Hondakinak eta giza jarduerak sortutako isurketak progresiboki gutxitzea: hiri-hondakin solidoen kasuan, errausketaren alternatiba teknologikoak indartzea, uretara eta lurrera isurketarik ez egitea, eta gure eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun produktu eta materialen berrerabilpena eta birziklapena sustatzea, ekonomiaren aurrean ingurumena errespetatzea lehenetsiko duen ekonomia zirkularra sustatuz.

- Petrolio merkearen aroaren amaierak alternatiba energetikoei buruzko hausnarketa sakona eragin behar digu. Halaber, ekonomiaren eta baliabideen plangintza demokratikoa planteatzeko beharrak izan behar du gogoeta horren ardatza.
- Plangintza horrek eskari- eta premia-irizpideei erantzun behar die, justizia sozialaren eta aberastasunaren banaketaren ikuspegitik. Gure ustez, lehenasunezkoa da egungo biztanle guztien oinarritzko premiak betetzea, etorkizuneko belaunaldiei behar horiek betetzeko aukera arriskuan jarri gabe. Energia-efizientziaren kudeaketa, elektrizitatearen, uraren eta gasaren erabilera optimizatzeko, energia berriztagarriak indartzeko, garraioa arrazionalizatzeko eta, horrela, kontsumo horiei lotutako kostu ekonomikoa murrizteko. Kontsumoa murrizteko, funtsezkoa da etxebizitzak birgaitzeko plan bat egitea, energia alferrik ez xahutzeko.

Energia berriztagarrian oinarritutako energia-industria garatzea izango da, zalantzarik gabe, elementu indartsuenetako bat epe laburrean. Makroinstalazio eolikoak eta eguzki instalazio izugarriak ezartzeko benetako eskaera-goraldi bat bizitzen hasita gaude.

Ezker Anitza-IU subiranotasun energetikoaren defendatzaile sutsua da, hau da, komunitate batek bere bizitza soziala erreproduzitzeko behar duen energia nola kudeatu behar duen erabakitzeke eta arautzeko duen gaitasuna, energiaren ekoizpenetik, erabileratik, banaketatik eta finantzaketatik pasatuz.

Ezker Anitza-IUrentzat bere ezaugarrietako bat da energia publiko eta % 100 berriztagarri baterantz trantsizio justu bat egiteko beharra (egungo %8a abiapuntu izanda); hori horrela, jakin behar dugu hori ezin dela egin gure lurraldeen kontura, landa-ingurunearen kontura besterik gabe: premiazkoa da plangintza orekatu bat izatea, hiriak ere ekoizle bihurtuz, eta ez bakarrik energia-harrapakari. Eta eraikin publiko eta pribatuetan energia-efizientziako neurriak premiaz martxan jartzea, gure energia-gastua murriztu ahal izateko: gastua murriztu gabe, ezinezkoa izango da trantsizio hori egitea, teknologia berriztagarria ekoizteko mineral kritikoak falta direlako.

Giza garapena bultzatuko duen gizarte bat behar dugu, bere ingurumen-balioak errespetatu eta zainduko dituen lurralde bat, eta, era berean, ekosistemen osotasuna bermatuko duen gizakion eta naturaren arteko harreman bat.

Horretarako, funtsezkoa da baliabide natural estrategikoen jabetza eta kudeaketa publikoa: ura, energia, airea eta lurzorua. Horrela, merkantzia bihurtzen eragotziko da. Energia berriztagarriak eta «enplegu berdea» bultzatzea, eta ekonomia solidarioko formula berriei babesa ematea.

Austeritatearen eta nahikotasunaren aldeko apustu sendoa egiten dugu, baina ez murrizketen emaitza gisa, baizik eta bizitza soil, zoriontsu eta eragin gutxiko baten bilaketan oinarritua. Jarrera politiko bat da: gutxiagorekin hobeto bizitzea.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-politika, gizarte- eta ingurumen-irizpide justuetan oinarritua

Ezker Anitza-IUK elikadura-subiranotasunaren alde egiten du, hau da, herriek nekazaritza- eta elikagaigintza-politika definitzeko duten eskubidea, hirugarren herrialdeen aurrean dumpingik gabe, tokiko nekazaritza-ekoizpena lehenetsiz, herritarrak elikatzeko, nekazariak eta lurrik gabekoek lurra, ura, haziak eta kreditua eskura ditzaten. Horregatik behar dira nekazaritza-erreformak, GEOen (genetikoki eraldatutako organismoak) aurkako borroka, haziak askatasunez eskuratzeko, eta ura ondasun publiko gisa mantentzeko, modu jasangarrian banatzen baita. Gainera, nekazariak elikagaiak ekoizteko duten eskubidea eta kontsumitzaileek zer kontsumitu nahi duten eta, nola eta nork ekoizten duen erabakitzeak duten eskubidea jaso behar ditu.

Bestalde, ekoizleak eta kontsumitzaileak nekazaritzako eta elikagaigintzako inportazio merkeegietatik babesteko duten eskubidea bermatu behar da, ekoizpen-kostuei lotutako nekazaritza-prezioengatik, bai eta herriek nekazaritza-politikaren definizioan parte har dezaten eta nekazaritza-ekoizpenean eta elikaduran funtsezko eginkizuna betetzen duten nekazarien eskubideak onar daitezten sustatzea ere.

Zentzu horretan, Euskadi inportazioen mendekotasun izugarria duen lurraldea da. Elikagaien industriarekin lotutako produktu gehiago inportatzen dira esportatzen direnak baino. Hiri handietako higiezin boometik eratorritako lurzoruen kontsumoak, industria edo meatzaritza-jardueretara bideratutako lurraldearen neurrigabeko kontsumoak eta lurzoru asko kutsatu dituzten industria-hondakinen kudeaketak gero eta zailagoa egiten dute nekazaritza-, abeltzaintza- edo arrantza-ekoizpen segurua garatzea.

Horregatik guztiagatik, nekazaritza- eta elikagaigintza-politika baten aldeko apustua egin behar da. Politika horrek askotariko eta kalitatezko elikagaien ekoizpena jarri behar du erdigunean, multinazional handien aurrean babestuta, eta 0 kilometroko ekoizpen- eta banaketa-sareak sortu behar ditu. Lur-banku publikoak, nekazari eta abeltzain gazteei laguntzeko programak eta interesik gabeko kredituak abiarazi behar dira, horiek ezarri eta teknifikatu ahal izateko, eta, batez ere, landa-eremuetan biztanleak finkatzea bermatzeko.

Beharrezkoa da, gainera, herri handietako erakundeak inplikatzeko, horietan nekazaritza-ekoizpena bideratutako politiken alde eginez, autokontsumora bideratuak, horrela Euskadiko hirigune handietan kokatutako herrien elikaduraren aztarna ekologikoa murriztuz.

Ildo horretan, ekonomiaren, elikaduraren eta ekologiaren arloko krisia bizi duen mundu batean, amaikorra den eta baliabide mugatuak dituen mundu batean, ezinbestekoa da desazkondearen gaiari heltzea, hau da, baliabide naturalen kontsumoa (lehengaiak eta energia) eta berotegi efektuko hondakin eta gasen emisioa gutxitzea, zerbitzu publikoen sorreran eta indartzean eta giza garapenean oinarritutako hazkundearekin konbinatuta. Hau da, jasangarritasunean oinarritutako sistema bat sendotzea.

Ondasun eta zerbitzuen balorazio-sistemen eta finantzaketa-sistemen joko-arauak aldatu behar dira. Izan ere, metodo horiek gero eta banaketa handiagoa eragiten dute hiri-aglomerazio handien edo estatu industrializatuen (biztanleria, kapitalak eta baliabideak erakartzeko gune gisa jarduten dute) eta landa-munduaren edo herrialde pobretuen artean; izan ere, herrialde pobretuak baliabideak eskuratzeko eta hondakinak isurtzeko eremu bihurtu dira, eta, hain zuzen, horregatik aldatu behar dira joko-arauak.

Horrenbestez, ezinbestekoa da, gure ustez, ekoizpen-jardueraren beste kontabilitate bati buruz hitz egitea, eta, era berean, Azterna Ekologikoa, Giza Garapenaren Indizea, Planeta Biziaren Indizea eta Aurrerabide Eraginkorraren Indizea erabiltzea. Horrela, Barne Produktu Gordinaren indizea gaindituko da; izan ere, BPGd-ak ikuspegi klasikotik baino ez ditu kontsideratzen merkataritza-transakzioak, eta gainerako naturarekiko harremanak eta zaintza-kontuak kanpoan utzi eta ikusezin bihurtzen ditu. Ezker Anitza-IUK proposatutako adierazleek zifra zehatzagoak ematen dituzte ondasun eta zerbitzuen jarduera produktiboa ingurune fisikoan, hau da, planetan, nola txertatzen den jakiteko.

Irizpide ekologikoetan oinarritutako kontabilitatea lortzeko egin behar den erreforma baten eta gastu publikoaren orientazio berri baten parte dira ingurumen-zergak. Zerga-sistema berde horren helburua ez da dirua biltzea, baizik eta ekoizpenean, banaketan eta kontsumoan aldaketa sakonak sustatzea: ingurumenari kalte egiten dioten jarduerak zergapetu behar dira, eta pizgarriak eman ondorio mesedegarriak dituztenei. Jasangarriak izateak kontsumo-eredu kapitalista (gehiegi ekoiztea, gehiegi kontsumitzeko) aldatzea esan nahi du, eta kontsumitzaile izatetik erabiltzaile izatera igarotzea.

Euskadiko ekoizpen-ereduak, lehen industrian oinarritzen zenak, egunero pisu espezifikoa galtzen du turismoarekin eta zerbitzuekin –bereziki ostalaritzarekin lotutakoak– alderatuta; eta gero eta pisu espezifikoa txikiagoa du oinarritzeko sektoreetan, nekazaritza eta abeltzaintza kasurako; kontuan hartu gabe etengabe desegiten ari den arrantza. Industria-eredu berria, lehen sektorearena eta zerbitzuena, birpentsatu eta planifikatu egin behar dugu, eta hori irizpide ekologikoen arabera birdiseinatzeko ideiarekin landu behar da, bai klima-aldaketa arintzeko bai horretara egokitzeko irizpideekin, eta, halaber, birdimentsionatu ere egin behar da, benetan jasangarria den industriaren pisua handituz eta zerbitzuen sektorearen pisua murriztuz, oso prekarizatu, sasoikakoa eta balio erantsi txikiakoa baita, eta lehen sektorearen –abeltzaintza, nekazaritza eta arrantza– jasangarritasuna eta pisu espezifikoa areagotuz.

Nolanahi ere, sektore publikotik energia-industria berriztagarri deszentralizatuaren, haren industria osagarriaren eta I+G+b zentroen ezarpena bultzatzeak funtsezko politiketako bat izan behar du, eta langabezia handiko eskualdeak garatzea ahalbidetu behar du.

Euskadiko ekoizpen-eredua aldatzeko beste ildo nagusietako bat biomedikuntzako eta ikerketa zientifikoko sektorearen eskutik etorri beharko da, sektore garrantzitsuenetako bat baita eta denboran irauteko bokazioa baitu. Pandemiak zerbait erakutsi badigu da industria-planta handiena instalatuta zuten herrialdeek gaitasun handiagoa izan zutela krisiari aurre egiteko beharrezkoak ziren material-premiei erantzuteko, bai babes-ekipamenduaren horniduran, bai mediku-ekipamenduan edo, besterik gabe, norbera babesteko beharrezko osagarrietan, atzerriko merkatuaren eta haren aldakortasunaren mende egon gabe.

Beharrezkoa da, bai kutsadura murrizteko beharragatik, bai baliabide fosilekiko kanpoko mendekotasun txikiagoa lortzeko aurrera egiteko, nekazaritza-sistema zorrotzagoak ezartzea ingurumenari dagokionez, agroekologiak aurrera egin dezan eta gure nekazaritza-sisteman gehiengoak izatea lor dezan. Ildo horretan, landatutako biodibertsitatea berreskuratzeko politikak bultzatzea, izurriei edo ingurumen-kondizioen aldaketei aurre egiteko nahikoa aldakortasun genetikoa ahalbidetzeko, uztak arriskuan jarri gabe, eta fauna laguntzailearen egoera hobetzeko.

Horrenbestez, funtsezkoa da jasangarritasunaren aldeko apustua egitea lehen sektoreko alderdi guztietan eta industria-eraldaketa indartsu baten alde egitea, produktuen errealizazioa ez dadin gertatu gure lurretik kanpo, edo elikagaien banaketa-sistema

hobetzea, hura indartuz, ekoizleentzako botila-lepoak saihestuz, hurbileko erosketarako sarbidea hobetuz, eta, beraz, elikagaien motxila ekologikoak saihestuz.

Gure mendiak eta landa-lurraldearen kudeaketa funtsezkoa izango da, eta kontuan hartu behar da euskal mendien % 70 inguru esku pribatuetan daudela; eta horrek berekin dakar zura ardatz duen monolaborantzaren bidez epe laburreko aprobetxamendu ekonomikoa egitearen logika. Ikusi dugun moduan, berriki izandako pinuetako «banda marroia» gaixotasunak ekarri du espezie hori masiboki moztea, eta eukaliptoekin ordezkatzeko; eukalipto horiek higatzaileagoak dira lurzoruentzat, eta biodibertsitatearen etsaiak. Premiazkoa da mendien aprobetxamenduari eta kudeaketari buruzko legedi bat izatea, monolaborantzak geldiarazteko eta biodibertsitatea sustatzeko, eredu berri baten aldeko apustua eginez, zuraren aprobetxamendua eta abeltzaintza estentsiboa uztartuko dituen.

Arrantza, gure herriaren ezaugarri nagusietako bat, arriskuan izan da eta dago, haren baliabideen gehiegizko ustiapenagatik. Arrantzaldien jasangarritasuna ahalbidetuko duen eredu baten alde egiten dugu. Kupoak kalkulatzeko eta geldialdi biologikoak egin behar direnerako alternatibak sortzeko aukera ematen duten azterlanak defendatuz, baina politika eraginkorrak eginez, gure kostaldean arrantza intentsiboa edo ontzi pelagikoak eta antzeko arrantza-arteak eragozteko, horiek oraindik ere egiten direlako, nahiz eta debekatuak egon. Harrapaketen trazabilitate-sistema bat proposatzen dugu, argi eta garbi identifikatzeko harrapaketen jatorria, kala, ontzia eta arrantza-arteak, bai arrantzaleen artisau-arrantza bai kontserba-fabriken tokiko eta kalitatezko produktua sustatzeko tresna gisa.

Turismoari dagokionez, ezinezkoa da zentzu guztietan (ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arloan) sektore horretan hazten jarraitzea eta Euskadiren garapena turismoaren esku uztea, sektore hori oso aldakorra baita. Eta ingurumen-arloari dagokionez, are gutxiago. Batetik, etorkizunean klima aldatzea eta muturreko fenomenoak agertzea (bero-bolada gero eta luzeagoak eta nabariagoak, euri-jasak, haizea, gure kostaldeak arriskuan jartzen dituen mareen hazkundea, etab.) arriskutsua da turisten erosotasunerako ere, eta oztopo bat izan daitezke gure lurraldea helmuga gisa aukeratzeko, bai barnealdeko turismoari dagokionez, bai kostaldekoari dagokionez.

Itsasoaren maila igotzeak edo uraren eskuragarritasuna gutxitzeak kostaldeko turismoan eragiten dute, eta kalteberatasun handiko egoeran uzten dute. Ezinezkoa izango da gero eta diru gehiago xahutzea gero eta denbora gutxiago irauten duten (dakarten inpaktu ekologikoaz gain) hondartzak eta kostaldeko azpiegiturak berreskuratzeko, eta, honako hau argi eta garbi dago: ur nahikoa izango dela bermatu gabe ezin da turismorik izan.

Garrantzitsua da sektoreak baliabideen erabileran egokitzeko eta hezteko neurriekiko konpromisoa hartzea, sektorea kalitate handiagoko, lurraldean inpaktu txikiagoko eta hurbiltasun handiagoko turismo motetara dibertsifikatzeko politikak ezartzea. Halaber, kontuan izan behar dugu erregai merkeen krisiak kostu txikiko hegaldiak murriztea eta turismo gutxiago sartzeko ekarriko dituela. Egoera horri aurrea hartzen joatea erabakigarria izango da gizartearen zati gero eta handiago bat baliabiderik gabe utziko duen krisia saihesteko.

Azkenik, sektore horiek guztiak erabat gara daitezkeela bermatzeko eta pertsonak eta salgaiak lurraldean mugitzea ziurtatzeko, ezinbestekoa da trenbide bidezko garraio publikoaren aldeko apustu sendoa egitea, bereziki hurbileko eta distantzia ertaineko garraio publikoaren alde, guztia AHTn zentratzeko politika eta Supersur eta antzeko azpiegitura antzuak baztertuta; izan ere, horiek ez dira eskualdeen arteko mugikortasunaren egituratzaileak, eta, argi eta garbi ikusi da ez direla eraginkorrak eta xahutzaileak direla. Mugikortasunaren kudeaketa alternatiboa planifikatzea: hiri-espazioetan bizikletaren aldeko

apustua egitea, eta lurraldea benetan egituratuko duten garraio kolektiboko azpiegituren eta plataformen beharra planteatzea. Horretarako, tailerrak berriz irekitzearen, industria osagarriaren eta profesionalen prestakuntzaren aldeko apustua egin beharko da, klima-aldaketaren aurka borrokatuz eta, aldi berean, produkzio-sistema sendotuz eta gure lurraren egituratze jasangarria ahalbidetuz.

3. tesia.

ANTOLAKUNTZA INDARTZEA KONBERGENTZIA ETA ESKU-HARTZE POLITIKOA INDARTZEKO.

Gatazkarako antolatzea, herri-batasuna eraikitzea

Ezker Batuaren azken bi biltzarrek ezarri duten funtsezko helburuetako bat izan da mugimendu politiko eta sozialaren ezaugarriak berreskuratzen joatea. Ezker Anitza-IU 2012an sortu zen, eta, urte batzuk sendotuta egon ondoren, nolabaiteko geldialdia igarota, egunerokotasunean irekiagoa eta malguagoa den antolakuntza politiko eta sozial baterantz aurrera egiteko beharrezkoak diren tresnak jarri behar dira. Oinarrizko egiturak indartzearekin batera, hainbat esperientzia jarri behar dira abian, hala nola kontuak emateko urteko biltzarrak egitea eta ekintzaileen sareak antolatzea;

horiek egiten saiatu gara, gure politika eta militantzia gatazka zehatzetan txertatzen joateko, gizarte-eraldaketako estrategia baten esparruan.

Illo horretan aurrera egiten jarraitzeko helburu nagusietako bat da gizarte-ehuna eraikitzen jarraitzea eta Ezker Anitza-IU espazio politiko irekia izatea, Euskadiko auzoetan, lantokietan eta ikasketa-zentroetan, herrietan eta hirietan gertatzen diren gatazka nagusietan esku hartzeko gaitasuna izanik. Ezker Anitza-IUk aurrera egin behar du bere sorrera-espiritutik borrokarako espazio bateratuak eraikitzen, bai kalean, bai erakundeetan, Euskadirentzat espazio eraldatzaile bat eraikitzen asmoz.

Herri-batasunaren estrategia: konbergentzia politikoa eta soziala.

2012ko hauteskunde autonomikoen erronkaren ondoren, Ezker Anitza-IUn tokian tokiko mailan konbergentzia eremuak eraikitzearen aldeko apustua egin genuen, 2015eko udal-hauteskundeei begira. Lan hori Equorekin batera hogeitau udalerritan baino gehiagotan egin zen koalizio egonkor batean (Podemos ofizialki ez zen aurkeztu udal-hauteskunde horietara –foru- aldundikoetara bai–), eta hautagaitza zabalagoetan gauzatu zen, besteak beste, Bilbon, Zornotzan eta Erreterian. 2015eko hauteskunde orokorretako deialdian bereiz aurkeztu ondoren, 2016an, Estatuan eta Euskadin, Podemos eta Equorekin batera aurkeztu ginen hauteskunde orokorretara, eta garaipen lortu genuen Euskadin botoei eta eserlekuei dagokienez. Garaipen horrek adierazten du hauteskundeak zer salbuespenezko unetan egin ziren; izan ere, egoera horrek, bi urte geroago Mariano Rajoyren gobernuaren zentsura moziora eramanez. Eraitza horri esker, EPko 6 euskal diputatu izan ziren, horietako bat Ezker Anitza-IUkoa, urte askoan lehenengoz.

Elkarrekin Podemosen espazio horrek pauso kualitatibo bat eman zuen 2016ko hauteskunde autonomikoetan eta 2019ko udal- eta foru-hauteskundeetan, 11 legebiltzarkideko legebiltzar-talde bat sartu baitzen, eta botoen % 14,86 lortu baitzuen autonomikoetan, eta % 10 foru-hauteskundeetan.

Argi dago estrategia horren bilakaerak hauteskundeak izan dituela ardatz, eta, salbuespenak salbuespen, gizartea eraldatzeko lankidetzan aritzen diren askotariko erakundeen arteko lankidetzaren eguneroko lanean oinarritzea falta dela, eta, batik bat, erakunde horien eta herritarren parte hartzearekin eta herritarren parte hartzetik.

Ildo horretan, gure helburu nagusiak izan behar du jendearen parte-hartzeak ardaztutako subjektu politiko baten alde egiten jarraitzea; hain zuzen ere, hortik dator Euskadin alternatiba hori eraikitzekeo plangintza bat izatearen garrantzi estrategikoa.

Gure lanak hauteskunde esparru bateratu hori indartzeko deia babestu behar du, deialdi soziala eta politikoa eginez. Deialdi horren bidez, Lanketa Kolektiboarekin batera, demokrazia zabala izango dugu funtzionamenduan, herri honen eraldaketa sozialaren alde egiten duten euskal herritar guztiak barne hartuko ditugu, alderdi, erakunde, kolektibo, gizon eta emakumeei irekiko gatazkie, beren antolakuntzei eta historiari uko egin gabe sartuz eta elkarrekiko errespetua galdu barik, programa politiko alternatibo bat definituko dugu Euskadira.

Zer konbergentzia?

Herri-batasuna eraikitzea Ezker Anitza-IUren eta Podemosen arteko koalizio hutsa baino sakonagoa da, baina, aldi berean, agerikoa da Elkarrekin Podemos-IU dela herri-batasunerantz aurrera egiteko daukagun oinarri sendoena. Ildo horretan, garrantzitsua da Ezker Anitza-IU inplikatzeko kalean oinarri sendo, bateratu eta herriko bat ehuntzeko, eta, aldi berean, Elkarrekin Podemos-IUren espazioari proposatzea espazio horretan gauzatzeko zenbait neurri parte-hartzaile, espazio horrek oinarria zabaltzeko dezan eta kaleko mugimenduekin lotura handiagoa izan dezan. Hauteskunde-koalizio hutsaren logikak gaitzetzeko, EP-IUren funtzionamendua arautu behar da, hazkunderaren eraginkortasuna, parte-hartzea eta potentzialtasuna areagotzeko. Aurrera egin dugu Euskadi mailan mahai politikoak eratzean, eta lehenengo urratsak egin ditugu antolakuntza-, komunikazio- eta erakunde-mahaietan, lurraldekoez eta herri zehatzen batekoez gain; alabaina, asko dago koipeztatzekeo eta logika burokratiko batetik, kudeaketatik edo gatazkek konpontze hutsetik aldentzeko.

EP-IUk ondo errotu behar du lurraldean, ildo horretan, eta erakunde logikan 2023ko udal- eta foru-hauteskundeak funtsezkoak izan arren, Euskadiren erronka espezifikoekin lotutako alternatiba politiko bat eraikitzekeo honako irizpide estrategiko hauetan jarri behar dugu arreta:

1. Programa egitea: Programa politikoak prozesuko eragile guztien arteko lokarria izan behar du. Ahalik eta parte-hartzaileena izan behar du, eta EP-IUren espazioa mugimendu sozial, sindikal eta ekonomiko alternatiboekin lotzea erdietsi behar du. Programarik gabe ez dago gehiengoak eratuko dituen proposamen politikorik.

2. Gizarte-mobilizazioa eta gatazkan esku hartzea: EP-IU ahalik eta gehien indartzeko, herri-batasuna eraiki behar da zentzu estrategikoan, hau da, auzo, ikasketa zentro, lantoki eta bestelako espazio bakoitzean antolatzekeo gai izango den benetako kontrabotere bat behetik eraikitzekeo gaitasuna. Gure militantziak gure auzo eta herrietan kanpaina politikoak garatu ahal izatekeo beharrezkoak diren antolakuntza-tresnak sortu behar ditugu; kalean kanpainak egin behar ditugu, eztabaida politikoak sartu ahal izatekeo, sistema politiko eta ekonomiko kapitalista honen hegemoniari eta EAJ buru duen eredu zehatzari aurre egitekeo.

Ildo horretan, metodologia edo lan-egitasmo erraz bat garatu behar dugu, militantziak eguneroko bizitzako arazo sozialekin lotzeko gai izango dena, haiek antolakuntzan eta borrokan eraldatuta.

3. Egituraketa instituzionala lurraldean. Espazio bateratuaren zerbitzura eta estrategikoki jarri behar dugu ordezkari-tza instituzional osoa: zinegotziak, batzarkideak, legebiltzarkideak eta ministroak. Erakundeen ordezkari-tza osoaren ildo gidaria ezarri behar da.

4. EP-IUren antolakuntza indartzea: Helburua da antolakuntza-indar handiagoa duen espazio bateratu baten alde egitea. Parte-hartze demokratikorako, eztabaidarako eta erabakiak hartzeko mekanismo eraginkorrak. Adostasuna funtsezko elementua gisa baliatzea akordioak ezartzeko, eta mekanismo demokratikoak erabiltzea, adostasunik lortzen ez dugun gaiak ebazteko. Koordinazio-mekanismoek alderdi guztien autonomia errespetatu behar dute.

Horretarako, hiru bide landu behar dira: lehenengoa, zuzendaritza maila desberdinen arteko harremanetan aurrera egitea (EAEkoa, lurraldekoa eta tokikoa), gutxieneko koordinazio arautu baten bidez, non, arestian esan dugun moduan, zenbait urrats egin diren, baina ez nahikoak. Bigarrena, erakundeen artean koordinatzeko lan-espazio komunak irekitzea, lan politikoa garatzeko eta antolatzeko (Sektoriala – Ogasun edo Solidaritate Taldearen adibideak hobetu eta areagotzea, bi adibide jartzearren – Biltzarrak, ekitaldiak antolatzea...) eta, azkenik, herri-batasunaren espazioan sartzen diren eragileen kopurua areagotzen saiatzea bestearekiko begirunea eta aintzatespena oinarri hartuta.

Zer erlazio dugu Euskadiko gainerako ezkerrekin? Ezker

Anitza-IU indartzea, langile-klasearentzako erabilgarriagoak

izateko.

Aurtengo martxoan eginiko XII. Biltzar Federalean zenbait kontzeptu argitu ziren kolektiboki, eta fase berri honetarako lehentasun politikoak ezarri ziren: Ezker Batua indartzea mugimendu politiko eta sozial gisa, aldi berean konbergentzia politikorako espazioak indartzeko.

Azken urteotan denbora gehiegi igaro dugu hauteskundeak lantzen, hauteskundeen ziklo luzea zela eta. Horrek zaildu egin du lehentasun gisa teorizatzen dugun horretan indar eta baliabide nahikoarekin arreta jartzea: borroka zehatzak, aktibisten sareak, Euskadiko klase-gatazkak.

Horrenbestez, orain garrantzitsutzat eta oinarritzotzat jotzen dugun horretan jarri behar dugu arreta: Ezker Anitza-IU indartzea. Gehiago izan gaitezen eta, batez ere, gure klasearentzako erabilgarriagoak izan gaitezen. Egitura arinago baterantz aurrera egitea, gatazka sozialaren eskaerari erantzuteko gai izango den egitura baterantz. Horretarako, antolakuntzaren arloan tresna egokitu eta indartu behar da, proposatutako erronka politikoari aurre egiteko.

Antolakuntza indartzea eta arintasuna.

Ebaluazioaren kulturak jarraitu egiten du gure lan politikoan, metodo gisa:

Azken urteotan, plangintzaren eta ebaluazioaren kultura sortzeko ahaleginak egin ditugu, Euskadiko Koordinakundeak urtero onetsitako lan-planen bitartez. Emaiza gazi-gozoa da; izan ere, plan horiek onetsi ditugu, baina ez dira modurik onenean egin eta ezin izan ditugu kolektiboki betearazi, eta, oro har, ebaluazioak eskasak izan dira. Horrenbestez, funtsezko erronketako bat da planifikazioaren eta kontu-emate kolektiboaren kultura horretan lan egitea. Horregatik, dokumentu honetan proposatzen da, federalekoan bezala, Balantze eta Kontuak Emateko Biltzar bat egitea erakundearen maila guztietan.

Gertakari sozial eta politikoen aldaketa-abiadura dena da une honetan; hori kontuan izanik, badirudi hori seriozki azpimarratu behar dugula. Urtero, erakunde gisa, geldialdi bat egin behar da bidean, egindakoa modu autokritikoan ebaluatu, eta Ekintza Plana berri eta egokitu urte berrirako.

Antolakuntza indartzeko plan integral bati aurre egitea:

Azken urteotan gogoeta sakona egin dugu eta neurri batzuk hartu ditugu militantzia gutxitzeari aurre egiteko. Euskadiko txoko bakoitzean erakunde osoaren mapaketa egin dugu sistematikoki: egoitzen erabilera, gure biltzarren antolakuntza-bizitza, kultur jarduerak, politika-jarduerak, hurbileneko gizartearekiko lotura, gizarte-mugimenduetako parte-hartzea, etab. Oinarrizko eta zentzuzko printzipio batetik abiatu ginen: ezin diogu inori eskatu IUren biltzar batean afiliatzeko edo gure egoitzara hurbiltzeko biltzarrak ez badu ezer edo ia ezer eskaintzen, ez bada bildu ere egiten eta hauteskunde-garaian soilik aktibatzen bada.

Azterketa horretan oinarrituta, hurrengo zuzendaritzaren erronka nagusietako bat izan behar da antolakuntza indartzeko plan bat onartzea. Plan horrek afiliazio-kanpaina batetik harago joan behar du: aktiboki entzutea, parte hartzea, aniztasuna, bajak berreskuratzea, afiliatuak eta jarraitzaileak inplikatzeko, lan-arloko toki- eta lurralde-planak, egoitzen erabilera-plana, etab. Horrek guztiak, jakina, arduradun eta zeregin zehatzak izan behar ditu horiek gauzatu eta ebaluatu ahal izateko. Inork ez digu arrakasta bermatzen, baina zenbat eta hobeto antolatuta egon, orduan eta aukera gehiago izango ditugu horretarako.

Antolakuntza eta Finantza Batzordeak lan izugarria egin du hiru lurraldeen parte-hartzearekin batera. Lan-egitasmoak abian jartzeko eta erakundea indartzeko funtsezko eremu bat indartzean datza. Uste da beharrezkoa dela bilerak hileroko egitea.

Erronka bat: kontziliazioa. Politika egiteak bateragarria izan behar du egunerokotasunarekin. Pandemiak harremanak telematikoki izatera behartu gaitu. Hori gogorki bizi izan dugu, batez ere ez zelako ohikoa, eta giza kontaktua ezinbestekoa delako, halaber, gure giza harremanak gidatu behar dituen senidetasun-alderdia zein antolakuntza-alderdia indartzeko. Baina, era berean, erakutsi digu aurkitzeko, biltzeko, adosteko, eztabaidatzeko eta aztertzeko modu horrek ere badituela abantailak. Ekologiaren eta ekonomiaren arloan: joan-etorri gutxiago, kutsadura gutxiago, mugikortasun-kostu txikiagoak. Baina, batez ere, erakutsi digu teknologia berriek gure egunerokotasuna, familiarekiko arreta eta, azken batean, gure bizitza bera beste modu batera uztartzeko aukera ematen digutela. Halako moldez, non politikan parte hartzea ez den izango aipatutako oinarrizko uko horien

sinonimoa. Horretan sakondu beharko dugu, pandemiarekin edo pandemiarik gabe, eta, aldi berean, beharrezkoa den giza kontaktuarekin uztartzen jarraitu.

Erakundea feminizatzea xede.

Feminismoa gure antolakuntza-jardunaren egituran txertatu behar dugu. Geure estatutuak aplikatzeko erronka dugu. Estatutu horiek gogorarazten dute pertsona berriak Ezker Anitza-IUn sartzea erraztu behar dela, eta arreta berezia jarri behar zaiela emakumeei. Izan ere, emakumeen parte-hartzeak gizonena baino nabarmen txikiagoa izaten jarraitzen du erakunde politikoetan, oro har, eta horien artean dago gurea ere nabarmen.

Emakumezko kideen militantzia errazteko, horretarako oztopo ugari dauden eremu batean –zeina, era berean, politikoa ere baita–, eta politika feministak erdiesten laguntzeko, neurri hauek proposatzen ditugu, besteak beste:

1. Ezker Anitza-IUn berdintasun plan bat ezartzea, emakumeen parte-hartzea oztopatzen duten jardunbideak eta erakunde feministagoa izaten lagunduko duten neurri egokiak identifikatzeko. Besteak beste, aztertu behar da militantziak, eta hemen arreta berezia jartzen diegu emakumeei, zergatik uzten dituen alde batean parte-hartzea eta/edo erakundea. Plan hori arlo guztietan garatu beharko da: edozein lan-egitasmok edo edozein afiliazio-planek eduki behar du; izan ere, feminismoa ez da aparteko irakasgaia, gure militantziaren esparru guztietan sartu behar dugun jarduna baizik.

2. Barneko bilerak antolatzeko eta garatzeko moduak txertatzea, militanteen parte-hartzea eta bizitza kontziliatzea errazteko. Horien artetik, honako hauek aipa ditzakegu:

- Ahaleginak egingo dira bilerak bi ordu baino gehiago ez luzatzeko. Hitz egiteko txandek itxiak izan beharko dute, eta esku hartzeko denbora zenbatu egingo da.
- Emakumezko kideen esku-hartzeak eta adierazpen askeak erraztea. Antolaketa feministagoa izateko, emakumezko kideek hitza hartu behar dute. Emakumeen parte-hartzea errazteko, hitz egiteko txandak desorekatuta badaude eta gizonak gehiago eskatzen badituzte emakumeek baino, emakumezko kideei denbora gehiago emango zaie esku-hartzeetan, eskatutako hitz egiteko txanden kopuruarekiko eta gai-zerrendako punturako aurreikusitako iraupenarekiko proportzioan.
- Erabakigarria da gizonak Sare Feministak proposatutako jardueretara eta prestakuntzetara bertaratzea eta horietan parte hartzea. Erakunde politikoek gizarte-eredu bat islatzen dute, eta eredu hori eraldatzeko feminismoa gutxiesteari utzi behar zaio, alegia, beste gai politiko batzuk lantzeko edo emakumeen edo zainketen arlora baztertzeko «saski-naski» gisa erabiltzeari utzi behar zaio. Horrelako jarrerak agerian uzten dituzte jarrera sexistak, lortu nahi dela esaten denaren aurkako oztopoak, eta, beraz, nahi denaren aurkakoak dira.

- Bilera-egunak eta -ordutegiak, deitutako pertsona guztiei galdetu ondoren, txandaka egingo dira organo zabaletan, betiere horrek emakumeek bertaratzeko aukera handiagoa izatean laguntzen badu. Kideek emakumezko kide horiek bertaratzeko lagundu badezakete, ezartzeko moduko dinamika bat izango da.
- Aurrez aurreko bileretan ludoteka bat bermatzen ahaleginduko gara; ahal dela, gizonetzko kideek eramango dute txandaka; hartara, lan hori ez da berriro emakumezko kideen gain jarriko.

3. IUren ordezkariak publikoak, bere emakume militanteen bitartez.

- Kaleetako mobilizazioetan (elkarretaratzeak, manifestazioak, edozein deialdi mota), emakumeak gatazkan eta mobilizazioan IUren erreferente gisa ikusten ahaleginduko gara.

- Ekitaldietan, hitzaldietan, prestakuntzetan, eta abarretan, parekotasuna bermatuko da
bi pertsonak baino gehiagok parte hartzen dutenean. Erakunde osoaren zeregina izango da printzipio hori betetzen ahalegintzea.
- Kolektiboekin, elkarteekin, eta abarrekin egingo diren bileretan, baita
Iuren izenean jarduteko bozeramailea aukeratu behar den espazioetan ere, erraztu
egingo dira honakoak: emakumeen parte-hartzea, emakumeak xede dituzten
estrategiak eta planteamenduak, emakumeek politikan parte hartzea
eta erakundearen feminismoa defendatzea.

4. Komunikazio-estrategiak eta -formatuak.

- Hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiliko da.
- Ezker Anitza-IUren komunikazio-kanpainen emakumeak ikusaraziko dituzte, eta erakundearen irudi parekidea sustatuko dute.
- Erantzukizun organikoen banaketa.
- Ezker Anitza-IUren organo politiko eta exekutiboen osieran parekotasuna bermatzea.

Nahi dugun Ezker Anitza-IU: herri-batasunaren zerbitzura dagoen mugimendu politiko eta soziala.

Gure erakundea mugimendu politiko eta sozial bat dela adierazteak esan nahi du ez garela soilik alderdi klasiko bat, gizarte zibilaren gatasketan eta borroketan diharduena, erakundeetan beren borrokei babesa eta ordezkagarritasuna emateko. Gizarte zibila ere bagara, bere kabuz mobilizazioa sor dezakeena. Langile-klaseko ehunka pertsona gara, gure klaseko sufrimenduek elkartzen gaituzte, balio batzuek eta proiektu politiko batek batzen gaituzte, eta antolatzen saiatzen gara. Ez dugu soilik pentsatu behar «txertatu» egin behar dugula edo gizarte-mobilizazioa sortzen denean hura lagundu behar dugula; aldiz, jakitun izan behar dugu mobilizazioa sortzen duen fokua izan gaitetzkeela, hala nahi badugu.

Gure programa politikoa ez da hauteskunde-kanpainan kalean 15 egunez eta gero erakundearen 4 urtez defendatzen den zerbait. Gure programa politikoa gure lurraldeko arazoak konpontzeko proposamenak dira, gure ezaugarriak dira, eta urteko 365 egunetan fronte guztietan defendatu behar ditugu, kalean bereziki.

Gure proposamen politikoaren defentsa hori kalean antolatzea da aurrean dugun erronka. Ezker Anitza-IU tresna baliagarria bihurtzea, herri-klaseak erakundeetan defendatzeaz gainera, gure auzo eta herrietan bestelako gizarte-eredu bat defendatzeko.

Ezker Anitza-IUko militantzia eta aktibismo soziala: aktibisten sareak, gizartea mobilizatzeko eta gure proposamen politikoa defendatzeko tresna.

Militanteentzako eta jarraitzaileentzako espazio irisgarri bat:

Aktibisten sareak erakundeko dozenaka militanteren eta jarraitzailearen (izena emanda daudenak zein ez) lana egituratzeko gai izango den tresna bihurtu behar dira. Kontua ez da soilik gaian eskarmentua duen militantzia antolatzea gure programa politikoa sektorialki eraikitzeke; aldiz, antolakuntza espazio bat sortu nahi da, arreta gehiago jarrita kalean gure proposamen politikoa defendatzeko.

Tresnak eta zereginak banatzeko egitura: Helburua ez da IUren barruan «erakunde txikiak» sortzea, gure eguneroko militantziari bilera eta eztabaiden ordu gehiago gehituko dizkietenak, eta askotan gehiegizkoak eta bateraezinak direnak gure kide askoren bizitzarekin. Aktibisten sareek gai izan behar dute urteko ekintza-planak aurkezteko, eta militanteek eta jarraitzaileek noiznahi horiekin bat egiteko aukera izan behar dute. Tresnak, metodologia, ekitaldiak eta materialak sortzen dituen espazio bat, gure militanteentzat eta gure ingurune sozialarentzat eskuragarriak izango direnak.

Kaleko lana eta ekintza ardatz dituen egitura: Aktibisten sareen zeregin nagusietako bat da irismen luzeko kanpaina politikoak egitea. Kanpaina horiek karteekin, panfletoekin, informazio-mahaiekin, sinadura-bilketekin, ekitaldi publikoekin, ekintza sinbolikoekin, mobilizazio-deialdiekin, eta abarrekin egingo dira, baita sare sozialetako ekintzekin ere. Gure proposamen politikoko elementuak defendatuko dituzte, gure lurraldeko herri-klaseei gehien eragiten dieten arazoei buruz.

EP-IU eraikitzeke beste tresna bat: Aktibisten sareak, halaber, «IU indartzea, UP indartzeko» logikaren babesean garatu behar dira. Ezker Anitza-IUren egituratik eta militantziatik gure kanpaina propioak kalera ateratzeak esan nahi du ez dugula inoren zain egon behar gure proposamen politikoa auzoetan eta herrietan defendatzeko. Badakigu, ordea, esperientziagatik, batasunaren indarrak soilik lortzen dituela garaipenak. Aktibisten sareek zabalik egon behar dute IUko eta Podemoseko militanteen eta UPren espazioan parte hartzen duen edozein pertsona, kolektibo edo erakunde politikoren artean batera lan egiteko espazioak sortzeko.

Gaur egun, hauek daude: Emakumea, Bakea eta Elkartasuna eta Errepublika eta Memoria Historikoa arloak/sareak eta Gazteria eta ALEAS lantaldeak. Horiek indartzea da erakundearen funtsezko lehen erronka, baita ardatz ekologistaren inguruko talde bat koordinatzea eta, dokumentu federalari jarraituz, gizarte-, auzo- eta sindikatu-eremuetako lana koordinatzea ere. Hori guztia lortzeko, beharrezkoa da, berriro ere, zeregin zehatzak esleitzea, bai zuzendaritza mailan, bai sare guztien mailan.

Ezker Anitza-IUren egoitzen egitekoa.

Gure egoitzak topagune sozial, kultural eta politiko bihurtzea oinarritzeko helburua izan behar da. Gure inguruan mugitzen den guztiaren zentro nabarmenetan eta herri-batasunaren zerbitzura dagoen espazio fisiko gisa, Podemosekin edo beste eragile batzuekin hauteskunde koalizio bat eratzetik askoz urrunago doan zerbait dela ulertuta. Kulturaren munduarekin, lanaren munduarekin eta gizarte-mugimenduen munduarekin konektatzea.

Egoitza bakoitzak jarduera programatuen urteko plan zehatz bat izan behar du, espazio horiei bizitza emateko, aukeren arabera eta pixkanaka hasita.

Biltzarrak, militantzia dinamizatzeko espaziotzat:

Arestian aipatu dugun moduan, azken aldiko helburu nagusietako bat tokiko biltzarrak indartzeko saiakera izan da, eta Kudeaketa Txostenean aztertu dugun moduan, zenbait aurrerapen egin baditugu ere, betetzetik urrun gaude. Gure erakundearen funtsezko zereginetako bat da dauden biltzarrak indartzea, biltzarrak bultzatzea militante bat dagoen lekuan, eta, jakina, behetik ahalduntzea erakundearen egitura osoaren babesarekin.

- Biltzar guztiek, urtearen hasieran, Balantze Biltzarrean, hurrengo urterako ekintza-plan bat egin beharko dute, udalerrri bakoitzaren gaitasunak kontuan hartuta.
- Ezin da egon tokiko biltzarrik, zeinetan ez garen gai hurbiltzen den edozein militante edo jarraitzailerik lan politikoko zereginak eskaintzeko. Ezker Anitza-IUK gure auzo eta herrietan borrokatzeko tresnak eskaintzeko gai den erakundea izan behar du.
- Biltzarraren agenda politikoa gure esparruko gizarte mugimenduen gatazken eta erronken ezagutza zehatzak markatu behar du.
- Udal-jarduera agenda horren zerbitzura jarriko da.
 - Biltzarrek gure erakundearen beheko/goiko transmisio-uhalak izan behar dute, eta politika orokorra tokiko politikara eramane behar dute, eta tokiko politika politikara orokorrera. Sareetan parte hartzea animatzea; horretarako, erakundearen egiturek babestu behar dituzte.
 - Antolakuntza indartzeko planean, militantzia berriari eta jarraitzaileei harrera egiteko bilerak egingo direla jasoko da. Bilera horietan genero-ikuspegia txertatu beharko da, eta modu parekidean koordinatuko eta moderatuko dira, Ezker Batuko emakumeek erakundearen zereginetan eta erantzukizunetan duten presentzia ikusgarri eginez eta afiliatu eta jarraitzaile berrientzako erreferente femeninoak sortuz.

Komunitatea sortzea.

Maila federalean, eta, beraz, hemen ere, antolakuntza-muskuluarekin eta gatazketan presentzia izatearekin batera, ezarri dugun helburuetako bat da komunitate bat sortzea militantziaren inguruan, bai barne-militantziaren inguruan, bai borroka partekatzen ditugun beste pertsona eta/edo kolektibo batzuekin.

Egun, ez da erraza herritarren arteko giza harremanak areagotzearen alde egitea, baina hainbat gizarte-erakunderen esperientziek (sindikatuak, feministak, herri-laguntzako sareak, bizilagunenak, etab.) adierazten dute horrela lan egiten denean kontzientzia kritikoa eta gizarte-eraldaketa lortzeko aurrera egiten dela.

Komunitatea sortzea antolakuntza sendotzea da, tokiko biltzarrak berreskuratzea eta bultzatzea, aktibisten sareak bultzatzea eta egoitzak sozializatorako eta borrokarako gune ireki gisa erabiltzea. Gainera, sustatu nahi dira elkarren arteko harremana, esperientzia militanteen eta elkarri laguntzeko esperientzien trukea,

kontsumitzeko modu alternatiboak, prestakuntza eta eztabaida militantea eta herritarrekikoa, herri-kultura, eta abar. Horrek guztiak komunitate militantea eta borrokakoa sortzen lagunduko du.

Erakunde gaztea eta gazte-langileen zerbitzura dagoena

Euskal gazte langileen bizi-prekarietatearen egoera kontuan izanik, beharrezkoa da Ezker Anitza-IUk konpromiso organiko eta politikoa hartzea horien beharrei erantzuteko. Horrenbestez, Ezker Anitza-IUko etorkizuneko Gazteen Sarearen helburua da erakundeko gazte militante eta jarraitzaileen erreferentziazko antolakuntza-espazioa izatea.

. Kanpoko ikuspegiarekin begiratuta, konpromiso kolektibo bat egon behar da gazteen berezko espazioetan egoteko (ikastegiak, lantokiak, aisialdiko lekuak...), horietan esku hartu ahal izateko eta eragina izateko, Ezker Anitza-IUren jarrerak ikusgai bihurtzeko eta gazteei helarazteko. Halaber, gure aldarrikapenetatik hurbil sentitzen den gazte-militantzia erakartzeko konpromisoa izan behar da.

Barneko ikuspegiari dagokionez, gazteria ez da soilik erakundearen etorkizuna, oraina ere bada; hortaz, egokia da belaunaldi erreleboa eraikitzeko konpromisoa hartzea ildo estrategiko gisa, bai antolakuntzaren ikuspegitik, bai parte-hartzearen eta antolakuntzaz kanpoko presentziaren ikuspegitik, Ezker Anitza-IUren adierazpen publikoa gaztetze aldera.